

EUSKAL ERRIKO
KANTA ZABRAK

Tomos I y II





Jose Gamundi

Zaldimà -
1950 -



N-13819 / R-39635

EUSKAL ERRIKO
KANTA ZARRAK

ATV.

18896

Tomo I

ECHEBERRIA
= PAPELERÍA =
Peñaflorida, 1 - SAN SEBASTIÁN

IMP. MACAZAGA
RENTERÍA



¡Ay, au dolorea!

S. Baroja

1

¿Inoiz txikitan egain ote det
amen besuan ametzik?
munduban nabil, aunditu ezker
arpegi baten atzetik,
¡alferrik beti! Ez det billatzen
pentzamentuan besterik.

2

Larogei urte baditut eta
ez dit galtzen memoriak,
begiratzen nau, far egiten dit
izeruak ditu begiak!
¡ñolaz ango aingeruen bat
¡kusten dute neriak.

3

¡Jesus nereá! Nere imajiña
gaur ikusi det kalean;
nere bordoyan goiberatua
banetorren ni pakian,
oju triste bat botadet eta
kordia juan zait golpean.

4

¡Larogei urte: berak amasei!
jorren berandu billatu!
kanposantura ni nuanian
ura munduban argitu:
eta penarik aundiena det
¡ez ditala begiratu!

Gernikako arbola

X

IPARRAGIRRE

1

Gernikako arbola
da bedeinkatuba,
euskaldunen artian
guztiz maitatuba;
eman ta zabal zazu
munduban frutuba
adoratzen zaitugu
arbola santuba.

2

Milla urte ingurua da
esaten dutela
Jainkoak jarri zubela
Gernikako arbola;
zaude bada zutikan
orain da denbora,
eroritzen bazera
arras galdu gera.

3

Ez zera eroriko
arbola maitea,
baldin portatzen bada
Bizkaiko Juntia;
Laurok artuko degu
zurekin partia,
pakian bizi dedin
euskaldun jendia.

4

Betiko bizi dedin
Jaunari eskatzeko
jarri gaitezen danok
laister belauniko;
eta biotzetikan
eskatu ezkerro,
arbola biziko da
orain eta gero.

Arbola bota zia
dutena pentsatu
Euskal-erri guziyan
danak badakigu;
Ea bada jendia
denbora orain degu,
erori gabetanik
iruki biagu.

Beti egongo zera
uda berrikua,
lore aintziñetako
mantxa gabekua;
errukizaitez bada
biotz gurekoa,
denbora galdu gabe
emanik frutuba.

7

Arbola erantzun du
kontuk bizitzeko
eta biotzetikan
Jaunari eskatzeko,
gerrarik nai ez degu
pakea betiko,
gure lege zuzenak
emen maitatzeko.

8

Erregutu diogun
Jaungoiko Jaunari
pakea emateko
orain eta beti,
baita indarrare
zedorren lurrari,
eta bendiziyoa
Euskal-erriari.

JEROLIMO

Jerolimo, entzun zazu
neskatxarekin ibiltzen zera zu,
ama datorrenian-nian,
aita datorrenian-nian
etxetik kanpora
biralduko zaitu.

Agur nere biotzeko

IPARRAGIRRE

1

Agur nere biotzeko
amatxo maitea,
laister etorriko naiz
konsola zaitea,
Jaungoikuak bera naidu
ni urez juatea;
ama zertarako da
negar egitea?

2

Lur maitea emen uztea
da negargarria.

Emen gelditzen dira
ama eta erria.

Urez noa ikustera
bai mundu berria;
oraintxe bai, naizela
urrikalgarria.

3

Gazte gaztetandikan
erritik kanpora,
estranjeri aldean
pasa det denbora:
erri alde guzietan
toki onak badira
bañan biotzak dio
zuaz Euskal errira.

Ume eder bat

IPARRAGIRRE

1

Ume eder bat ikusi nuben
Donostiyako kalean,
Itz erditxo bat ari esan gabe
nola pasatu parean,
Gorputza zuben liraña eta
oñak zebilzen aidean,
Politagorik ez det ikusi
Nere begiyen aurrean.

2

Aingeru zuri pare gabea,
Euskal erriko alaba
Usterik gabe zu gana beti
Nere biotzak narama;
Ikusi nayan beti or nabil,
Nere maitea, au lana...!
Zoraturikan emen naukazu
Beti pensatzen zu gana.

3

Galai gasteak galdetzen dute,
Aingeru ori nun dago,
Nere maitea nola deitzen dan
Ez du iñortxok jakingo;
Ez berak ere, ez, luke naiko,
Konfianza orretan nago,
Amorio dun biotz oberik
Euskal-errian ez dago.

Gitarra xarixo bat det

IPARRAGIRRE

1

Gitarra xartxo bat det
nik nere laguna,
orrela ibiltzen da
artista euskalduna;
egun batian pobre,
bestietan jauna,
kantatzen pasatzen det
nik beti eguna.

2

Naiz dala Italia,
orobat Frantzia,
bietan billatu det
milla malizia;
korritzen badet ere
nik mundu guzia,
maitatutzei det beti
Euskaldun erria.

3

Jaunak ematen badit
neri osasuna,
oraindik izango det
andregai bat ona;
nai badet frantzesa
interesa duna;
bañan nik naiago det
utsik euskalduna.

4

Adios Euskal-erria,
ez bañan betiko,
bost-sei urte ontan
ez det ikusiko!
Jaunari eskatzen diot
grazia emateko
lur maite ontan
bizia uzteko.

Ara nun diran

IPARRACIRRE

1

Ara nun diran, mendi maiteak,
ara nun diran zelaiak,
baserri eder zuri zuriak,
iturri eta ibaiak;
Endayan nago txoraturikan,
zabal zabalik begiyak,
ara España, lur oberikan
ez da Europa guziyan.

2

Gero pozik bai Donostiara,
Okendo-aren lurrera,
zeru polit au utzi bearra,
nere anayak, au pena;
Irutxulueta maitagarria
bere tokiya zu zera,
Beneziaren grazi guziyak
gaur Donostiyan badira.

3

O! Euskal-erri eder maitea,
ara emen zure semea,
bere lurrari muñ ematera
beste gabe etorria,
zuregatikan emango nuke
pozik bai nere bizia,
beti zuretzat ill arteraño
gorputz ta anima guzia.

4

Agur, bai; agur Donostiako
nere anaiak maitiak,
Bilbaotikan izango dira
aita sarraren berriak,
eta gañera itz neurtuetan
garbi esanaz egizak
Sud' Amerikan zer gertatzen da
jakin dezaten guziyak.

Ezkongayetan

IPARRAGIRRE

1

Ezkongayetan zerbait banintzan
ezkondu eta ezer ez,
edertzalia banintzan ere
aspertu nintzan ederrez,
nere gustua egin nuben ta
orain bizi naiz dolorez.

2

Nere andrea andre ederra zan
ezkondu nintzan orduan,
mudatuko zan esperantzarik
ere batere ez nuan,
surik batere baldin badago
maiz dago aren onduan.

3

Zokoak zikin tximak jario
aurra zintzillik besoan,
adobakia desegokia
gona zarraren zuloan,
iru txikiko botilla andia
dauka berekin albuan.

4

Neie andrea alperra dago
ez da munduan bakarrik,
gauza gozoen zalea da ta
ez du egin nai bearrik,
sekulan ere ondo izango ez da
alakoaren senarrik.

5

Larunbatetik larunbatera
garbitzen ditu zatar bi
bere ayetxek berotutzeko
egur erretan zama bi
belaun bietan bana artuta
ez da isiltzen kantari.

6

Nere andrea goiz jaikitzen da
festara biar danean,
buruko miña egiten zayo
asi baño len lanean;
zurekin zer gertatuko zan
nik bildurrik ez nuan.

Nik zuri, zuk neri

1

Matzaren orpotik dator

mama gozua

mama gozua

edango neukela

beterik basua

nik zuri,

zuk neri,

agur egiñaz alkarri

basua txit garki

biarko da ipiñi.

Zibillak esan naute

IPARRAGIRRE

1

Zibillak esan naute
biziro egoki
Tolosan biar dala
gauza erabaki;
giltza pian sartu naute
poliki poliki,
negar egingo luke
nere amak baleki.

2

Jesus tribunalian
zutenian sartu
etzian Pilatos'ek
kulparik billatu;
neri ere arkitu
ez dirate barkatu,
zergatik ez dituzte
eskubak garbitu?

3

Kartzelatik atera,
fiskalen etxera
abisatu ziraten
juateko beriala;
ez etortzeko geiago
probintzi onetara
orduban artu nuben
Santander aldera.

Bein batian Loyolan

X

BILINTX

1

Bein batian Loyolan
Erromeriya zan,
Antxen ikusi nuben
Neskatxa bat plazan;
Txoriya bañan ere
Ariñago dantzan,
¡Urasen bai polita
An politik bazar!

2

Esan nion desio
Senti nuben gisan,
Arekiñ izketa bat
Nai nubela izan;
Erantzun ziran ezik
Atzegiñ ar nezan,
Adituko zirala
Zer nai niyon esan.

3

Arkitu giñanian
Iñor gabe jiran,
Koloriak gorritu
Arasi zizkiran.
Kontatuko dizutet
Guztiya segiran,
Zer esan niyon eta
Nola erantzun ziran.

4

Dama polita zera
Polita guztiz jai!
Bañan alare zaude
Oraindik ezkon-gai;
¿Ezkon gaitezen biyok?
¿Esan zadazu bai?
—¿Ni zurekin ezkondu?
¿Ni zurekin? ¡Ja jai!

Ardua eran da

Ardua eran da moskortzen naiz,
pipa artuta txoratzen naiz,
kortejatzia lotsatzen naiz,
nola demontre biziko naiz?

Mertxikaren

Mertxikaren loriaren ederra!
Barnian dun exurraren gogorra!
Maitatu du neretzako etzena...
Orreke maiten dit biotzian pena-

Kontxesiri

J. I. Iztueta

1

Maite bat maitatzen det maitagarria,
Begi ederra du ta guztiz argia;

Daukat urruti,

Bañan ezin kendu det burutik;

Aren itxura,

Saldu albaliteke pisura,

Urriaren truke

Nork erosi faltako ez luke. (berriz).

2

Ogei ta lau leguaz nago aparte,

Bitartean badaukat milloi bat ate,

Guztiak itxirik;

Nai arren ez egon ixilik;

Beti negarrez,

Nere maite maitearen galdez;

Ote dan bizi,

Biotz biotz nereko Kontxexi. (berriz.)

3

Egunaz argi gutxi, gabean illun,
Konsuelorik ez da neretzat inun
maitea gabe;

Egin ote danik aren jabe
Oroitutzean,

Zenbait pena nere biotzean
ditut igaro;

Maite det, eta ez da milagro. (berrtz).

4

¡Ai au bakardadea eta tristura!
Nere biotz gaxoa ezin pistu da,
Ain dago illa;

Beti dabill konsuelo billa;
Bere artean

Banengo maitearen aldean,
Ordutxo biko,

Pena guztiak lirake ilko. (berriz).

5

Nere maitea zutzaz ni oroitzen naiz
Egunaz ere baita gauetan txit maiz,
 Lotan ere bai;
Zu ikusitzera ni joan naiz;
 Libre banengo
Or nitzake egun bigarrenago,
 Naiz orduan il,
Ez nuke izango batere miñ. (berriz),

6

Lenengo gau batean egin det amets,
Bañan pensamentuak beti al rebes
 Irtetzen dira;
Ustez negoen zuri begira,
 Maite polita,
Kofrearen gañean jarrita,
 Kontu kontari,
Nai nuen bañan, ez nintzan ari (berriz)

7

Maite nerea daukat beti gogoan,
¡Ai orain banengo ni are alboan
 Inoiz bezela!
Jaunak amets au kunpli dezala,
 Balitz konbeni,
Konsueloz ilko nitzake ni
 Nere ustean,
Maitetxoren biotza ikustean (berriz).

8

Nere maite polita ez da zer etsi,
Bigar ere ez bada or nazu elzi
 Lengo lekuan,
Allegatutzen naizen orduan,
 ¡Ay au poza,
Nere maite maitetxo biotza!
 Zuri begira,
Pena guztiaz aztuko dira ¡berriz).

9

Zure gauza polit bat ordet nerekin,
Izkribaturik dago letra birekin;
 K ta B dira,
Askotan nago oyei begira;
 ;Ain dira piñak!
Maitetxo polita, zuk egiñak
 Sedaz ederki,
Kolkuan gorderik dauzkat beti (berriz)

10

Esperantzetan bizi, maite gozoa,
Noiz bait kunplituko da gure plazoa,
 Eta orduan,
Gauza txarrik ez artu buruan;
 Lengoai utzi,
Ez degu pasatzen pena gutxi,
 Preso sei urtez
Orduko gaituzte nere ustez (berriz)

Ene izar maitia

Belsunze'ko Bizkondea

1

Ene izar maitia,
ene txarmagarria,
ixili zur'iküstera
irten nitzauzu leioara
koblatzen dudalarik
zaude lok'arturik;
gauzak'ametsa bezela
ene kantua zauzula!

2

. Zuk ez nuzu ezagutzen,
ori ere zaut gaitzitzen;
ez duzu ene bearrik
ez eta atxolarik.

Ill edo bizi nadin
zuretako berdin!

Zu aldiz maite Maria,
zu zare enet bizia!

3

Amodiozko pena zer zen
oraino ez nakien!
orain ez nuzu biziko
baizik zu maitatzeko,
norat den itxurkia
ara Juaiten da ura:
orobat ni, maitenena,
jiten niz zure gana!

Goizian sartu

1

Goizian sartu tabernara eta
ateratzen naiz azkena;
egun guztiyan zurrutian eta
etzait betetzen barrena.

2

¡Ai au erari zoragarriya,
neri gustatzen zaidana!
Maria Jesus, biyotzekua,
bete amaseigarrena.

Markesaren alaba

Iturrino

1

Zeruak efa lurra
egin zituana
memoriya argitza
atoz neregana;
esperantza badaukat
zedorrek emana
kunplitzeko dedala
desio dedana.

2

Amoriyozko penak
bertso berrietan
publika albanitza
Euskal-errietan;
enteratu naiz ongi
enkargu oyetan
San Jose arrazaldeko
iruterdiyetan.

3

Markes baten alaba
interesatuba
mariñerua rekiñ
enamoratua
deskubritu gaberik
bere sekretua
amoriyua zeukan
barrena sartua.

4

Egun siñalia zan
goguan artzeko
esan ziyola aren
etxera juateko.
—Deseo dedan itz au
manifestatzeko
zurekin, Antonio,
nago izateko.

5

—Zer esaten dirazu,
Juanitak itz ori,
tentatzen aizerala
trazak badirudi,
etzait zure gradurik
tokatzen neri,
ez burlarikan egiñ
mariñeruari.

6

—Iduki dezakezu
ongi sinistua
aspaldiyan neguala
zutzatz gustatua,
etzaitut nik utziko
desanparatua,
ala egiten dizut
gaur juramentua.

7

Konformatu ziraden
alkarren artian
ezkonduko zirala
urrengo urtian,
eskola ikasteko
biyen bitartian
beraren erritikan
guztiz apartian.

8

Ala disponiturik
jarri zian biyak
kartaz entenditzeko
alkarren berriyak
formalidadiakin
jartzeko egiyak,
baña etziran lo egon
amaren begiyak.

9

Alferrik izango dira
aserre gurian
ez naute mudatuko
eternidadian,
esposatu nai nuke
kariño onian
Antonio Maria
etortzen danian.

10

Ezin egon zan ama
itz ori sufritzen
beriala asi zan
kartak detenitzen
intenziyo aundiagoz
ezkontza galdutzen;
Juanitak alakorik
etzuen pensatzen.

11

Amaren maleziya
korreora juan ta
Antonio iltzela
egĩñ zuan karta;
Juanitaren tristura
maitia, esan ta
engañatu du beste
gezur bat esanda

12

Amak esaten dio:
—Juanita neria,
galdu da diotenez
Antonio María,
ni billatu dizut
beste bat obia,
mayorazgo interes
askoren jabia.

13

—Ama, ez neri esan
orrelakorikan,
ez det nik bestegana
amoriyorikan,
ezin alegre leike
nere barrenikan
komenienzia ona
egonagatikan.

14

—Utzi alde batera
orrelako lanak,
ez ditut nik ikusten
zu bezela damak,
nai badituzu artu
onra eta famak
giyatuko zaituzte
aitak eta amak.

15

Denbora kunpliturik
galaya abiyen
zer pasatu ote zan
aren memoriyan
kartarik artu gabe
juandan aspaldiyan,
inozente sartu zan
jayo zan erriyan.

16

Au da lendabiziko
esan zenduana:
—zer da musikarekiñ
onratzen dutena?
—Markesaren alaba
kalian barrena
esposario zala
ark biarzuena.

17

Desmayaturik egiñ
zuen ordu-bete
gero nobiya eske
itz bi egiñ arte,
ingurutu zitzayon
makiñabat jende;
bigarren ordurako
il da derrepente.

18

Gaba pasatu eta
urrengo goizian
entierrua zuben
bigarren klasian,
markesaren alaba
guziyen atzian;
izer pena izango zan
arren biyotzian!

19

Penarekin lerturik
Antonio il zan,
akonpañatu zuen
Juanitak eleizan
naitasuna baziyon
esan dedan gizan,
gerostik etzuen
osasunik izan.

20

Erremedia bazei
sentimentu ori
bitarteko bat jarri
Jesus maiteari
oraziyo egiñaz
Birjiña Amari
zeruan gerta dediñ
Antonio Mari.

21

Alkarren konpañian
guk ere nai degu,
Birjiña, egiezu
Jaunari erregu
kristau guziyagatik
baldin albazendu,
Iturrinok orrela
desiatzen du.

Senarrak emaztiari

Andrea zalea naiz nerez
eta protxua nai berez,
bikaña daukat itxurez,
oyek gogoan dauzkeala
nabil egunez ta gauez
ona bai abillidarez,
sasoikoa da edarez,
atso zartutakoa ez.

2

Matrimonio utzia,
bakarrik naukat utzia,
bizi biarko etzia,
gizona morroi zarpa zarrakin
andria galan jantzia,
jai! au zer diferentzia,
nork artu pazientzia
nik daukat penitentzia.

3

Andrea dabil tratuan,
emanean da artuan,
legorrian da portuan,
bere bototik salduko luke,
senarra iru kuartuan
isla batera barkuan
entregatzeko kontuan
ez da prezio altuan.

4

Ari zan Mari Aldarte
parrandan gastatu arte,
bizio txarrakin parte,
etxea saldu, diruak artu
orain guztiontzat kalte,
andrea daukat alkate,
errespetoa aparte,
engañatuta naukate.

5

Ni nago morroi serbitzen,
besteren kargak berdintzen
gorputza asko nekatzen,
maitea orla ibiltzea
ez du legeak agintzen,
asiagatik urdintzen,
gazteak dio segitzen
nork daki nola dabilten.

6

Lenago gabe egondu
akordatu naiz berandu
ezin gerade konpondu
mundu onetan suerte onik
ez da neretzat izandu
mutill zartuta ezkondu
oraiñ andrea gallendu
gaztea bear omendu.

7

Badaukat kortejantea,
alperra ta tunantea,
pikaro balientea,
gabean iñork sentitu gabe
irikitzio atea
berak naiduen artea,
atsegin da egotea,
orlako borondatea.

Eperraren kanta

Eperrak kantatzen du
goizean goizetan
ez asko fiyatzeko
mutillen izketan.
Fiyatzen bazerade
mutillen izketan
eroriko zerade
arri labanetan.

Txantxangorriya

Arrese'tar Emeterio

1

Zuk dezun margo ber-bera duen
osto geyenak lurrean
zuaitzetatik erori eta
banazka soill daudenean,
begiyak xabal-xabal jarrita,
adar me baten gañean
egoten zera txantxangorriya,
negarrez uda azkenean.

2

Ain txunkun, apal eta geldiro
jarraitzen zera kantuan,
non ernai beti zuri begira
egon arren bat onduan,
naigabe «pranko» banatugatik
kantari zauden orduan,
iñoiz ez dizu ari zerala
antzik emango mokuan.

3

Papar txiki ta gorritxa bor-boill
ler egiteko zorian
jardun-gai oso kupigarriaz
beterik daukazunean,
ainbeste negar..., eresi xamur...
axanpa guzik batean,
ez dakit nola kabitzen diran
zure kolko pollitean.

4

Aldizka *purruxt*, ega motzean,
uste gutzinez aurrera
azaldurik an laister-bidetik
maidagora goazela,
gidari zintzo gertu bat izan
nai bezenduke bezela,
gure alboan zabilta beti
txoriño maite-maitena.

Maite zaitugun ezkere nunbait
ordañak aurrez ematen
ote zabiltzan esan liteke
negua sartu baño len.
Ez ikaratu!, elurte gaizto
aundienak izan arren
gure ondoan arkituko da
zuretzako ainbat lurmen.

¡O, txori gaxo, sotil, pollita,
biotz erien laguna,
txiruliuka negar ugari
eztiro dariyozuna
zu zera beti txantxangorriya,
zu zera txantxan-iztuna,
alakose gauz maitagarri bat
erakusten diguzuna.

Ezkonduak eta ezkongai

1

Ezkonduak eta ezkongai
guztiyak ondo bizi nai,
dirua degunian jai;
fameliako buruzalia
kontu geiago ere bai,
len ardua eraten lasai,
orain urrutitik usai,
etxian nago andre zai.

2

Goizian dirua kontatzen
tabernarako prestatzen,
bazkari ona topatzen
kafia artu, kopak eranez,
erariak fiñak jokatzten,
ez det egiñak ukatzen,
orain ezpañak nekatzen
txardin ezurzak txupatzen.

3

Agindu zerbait kamiyo
gorputzak milla jeniyo,
langilli danai au diyo,
biziyuetan gertatu gera,
zu zeralako meriyo,
lengo diruak adiyo,
non naitik zarpa jariyo
eztu gezurrak baliyo.

Asto gaxua

1

Al ikullu ya no vuelve
mi buen astua, no vuelve no;
ya no brinca de poxa
cuando cabeza tocar alguno;
arrayua suerte txarra
con tripako miña poner hizo.
Biotzeko asto gaxua
malkos tiraba cuando murió.

2

Y agora te hace dos años
juxtu juxtuak ayer cumplió
que las tripako miñas
al pobre burro le agarró,
con su arrantza fuerte
una noche me despertó.

Biotzeko...

3

Levántarme enseguida
y al ikullu marché yo
con ojos de bixigu triste
como hablando mirar hizo
echaba unos suspiriyuas
de muy adentro se le salió.

Biotzeko . . .

4

Estirar luego la pata
como arrikoskorra se endureció
y yo con mucha pena
le dije: Asto gaxua adiós.
Hacer un abujero grande
y tierra encima le puse yo.

Biotzeko . . .

Amardun

Baldin bada zeruan
jaten usukomerik,
ezin litzake oberik
auxen baño an ere jan,
ja zer usaia zeruan!
¡Ill bat lezake piztu,
ezin ez ni sendatu!
zer? Uste det aingeruak
ziradela gosetuak
usakumez saletu.

X

Ardoa

Meajer

1

Ni naiz txit gauza gozoa
Eta pozkida osoa,
Beltza naiz eta zuria,
Illuna eta argia,
Indarra det ta garboa
Eta izena det ardoa.

2

Noé gizon aditua
Zedorren pensamentua
Izan zan gauza andia
Ipintzen mastia,
Zu zaitugu ardoaren autore
¡O! zorioneko Noe!

3

Edari maitagarria,
Tristearen gai irria,
Dezu alaitze begia,
Eta kentzen nai-gabia,
Mutuba ipintze kantari
Eta motela dantzari.

4

Ausi, atera, ebakia,
Miña dala edo zauria
Zendatzeko belarra
Klaretara ta nafarra,
Moskatela edo Malaga,
Edozein ardo ona bada.

5

Pasatzen du aste osoan
Aitzurtzen batek soroan
Nekaturikan guztia
Dariola izerdia,
Laster legoke au galdurik
Ezbalu jayetan ardorik.

6

Jateko ez bada gogorik
Eta eziñ egin lorik
Eritasun oben
Edo beste edoseñen
Zendatzeko balzamo
Da mats onaren zumoa.

7

Ardo gabe ez da jalerik,
Ez mezarik eta ez festarik,
Bada au faltatu ezker
Ez da arkitzen gero
Baizik naigabeko tristura
Illuntasuna ta mallura.

8

Barbero, mediku guztiak
Erremedio aundiak
Dituzte besterentzat,
Baña bada berentzat,
Pistutzeko aldan lenena
Ardo zarririk dan onena.

9

Ardoa eranik neurriz
Beiñ illa pizten du berriz
Baña bada asitzen
Belaunak limuritzen
eta irakiten buruban,
Ez da gauza onik orduan.

Orain bi milla urte igaru

Txirrita

1

Orain bi milla urte igaru
bezela ziran asiyak
erromatarrak berendunairik
gure zazpi probintziyak,
garai artako abarka zunak
ziran jeniyoaz biziya,
baziran penaz amildu eta
beren ezurak autsiyak,
lastimosuak izandu ziran
oyen orduko antsiyak.

2

Denbora artako gerrero zarrak
ziran gizon onraduak,
aziyuetan irabazita
jazten zituzten graduak,
irurogeita lau urtekuak
bazabiltzan soldaduak
orain bezela etzuen iñor
engañatutzen diruak,
Lekobide ta Osabal ziran
Kantabriako buruak.

3

Aitona oyek zer pensatu zuten
azkeneko eriyotzian,
ez genduen jakin izandu,
pena daukat biyotzian,
arrats guziyan otsan guardiyan
egunaz erdi gosian,
zenbait naigabe sufritu zuten
Erniyoko gurutzian,
oyen orduko oraziyuak
ederrak izango ziran.

Gure izeben amen amone
osaben aiten aitonak
emen·Fueruak defer ditutzen
ibillitako gizonak,
bertan batalla irabazita
gero Erromara juanak,
Otabianok galdu zituben
bere erriko lagunak,
aundi gaistuak diran tokiyan
pagatzen du txiki onak.

Arrosa baño zabalako
gure zazpi probintziyak,
baratza eder bat bezela zeuden
guziyak lorez jantziyak,
lau Españian morroi gaudenak
iru an ditu Frantziyak,
gizon gaisto bat dala mediyo
ondatu giñan guziyak,
beste munduban ikusten badet
eman biazkat graziyak.

6

Persegituaz izandu gera
juandan zenbait urtian
asko zabiltzan agindu nairik
Kantabriako partian,
mantxa gabeko lore ederrak
eztalirikan lur pian,
errespetua guardatzen zuten
lartaun emen artian,
oraindikanere denbora dago
berriro saya gaitian.

7

Geren sallari segi zayogun
ez bestetara mugitu,
motiborikan asko badaukat
ongi esan nai banitu,
ni engañatzen ez baldin banitz
Euskal-erriyak baditu
Kantabriaren izenik ere
nai ez dutenak aditu,
zazpi senide aita batenak
ezin gerade unitu.

8

Zazpi senide aita batenak
danak euskaldun garbiyak.
Tubal zarraren artaldetikan
banatutako ardiyak,
beren aitona nungua zuten
ez dakitenak erdiyak,
utzi ditzagun bide illunak
billadizagun argiyak,
beti betiko bere izena
izan dezan Kantabriyak.

9

Beren idea beste gauzarik
ez dauzkatenak buruan,
gaurko egunian alako asko
baditugu inguruan,
esaten dute Kantabria onek
bere jabia nor duan
kontra egiten asten zaizkigu
setosuaren moduan,
geren anayak ez ditugula
esan gentzake orduan.

Baldin egiaz egiña bada
aurreko zarren papera,
zazpi probintzi euskerazkuak
Kantabriatarrak gera,
nere biyotzak dakadan asmu
beti dijua papera,
bide askotatik martxa zuzenik
ezin gentzake atera,
onena zein dan ongi neurtuta
bildu gaitezen batera.

Zazpi senide aita batenak
egotia onen triste
fortun'au da desgrazi batez
baño ez genduan uste
maitatzen dute etorri dana
besteren gauzaren eske
egunen batez aserre samar
ikusi biar gaituzte,
jakin dezaten bagerala gu
izena degun ainbeste.

Mundu onetan ezin bizi ta
ez degu juan nai bestera,
gezurra esanda ez dago andik
etorritzerik ostera,
arrazoi gabe eman ziguten
lege kontrako jazkera,
gañera berriz kontrari daude
galduko dala ez eskera,
gogor egiten ezpazayote
oyentzat aña ez gera.

Kolka txarraren azpiyan dauden
txito urrikalgarriyak,
amarretatik bost iltzen dira ta
beste bostak elbarriyak,
pisti gaistuen bildurrez beti
gora begira jarriyak,
indar gutxiko gorputza eta
suspiriyuak larriyak
kastigu onen mendian bizi
gera gaur Euskal-erriyak.

Albaiteruen salan

Txirrita

Albaiteruen salan
demoniñua artan
demoniozko estroposo bat
egin nuben bertan;
demoniñuak emen,
demoniñuak an,
demoniñuak nun nai
gorputzaren bueltan,
demoniñuak sasoi zebillen
demoniñuetan.

Galtzaundi

1

Neri deritzan Galtzaundi,
apellidua det Goñi,
Aldasoro izen goitia
deitzen dira neroni;
illtzerikan ez nuben
lenago pensatzen,
bañan oraingotikan
ez naiz eskapatzen,
testamentua egitera
nua ni lenbai len
nere parientiak
lasatu ditezen.

Ta Galtzaundi,
ta Galtzaundi,
apellidua det Goñi.

Aitaren, Semiaren,
Espiritu Santubaren,
Jaun zeruaz lagun zaidala
lan onetan neri arren;
sentimentu bakarra
daukat barrenen,
alaba ipurtaundia
utzitzia emen;
orra neregatikan
oyek nola dauden,
Jaunak eraman nazala
zerura lenbai len.

Ta Galtzaundi...

Nere lengusu Pokoflinori
nai diozkat bada utzi,
nere eskatzeko estanteria
bere jenero ta guzi;
bañan ango kristalik
ez dezala autsi,

bestela utziko dizkat
guziak Ramos'i,
egiten badiote
jaun. oni igesi,
laister juango zaizka
damak Rodríguez'i.

Ta Galtzaundi.

4

Ni illda gero emaztia
penaz illko balitzake;
nere onduan enterratzia
iñola albanitz nai nuke;
eta gañian jarri
letra bat aundiya:
Emen dago Galtzaundi
eta konpañiya;
poz aundi bat artu zun
Tolosako erriyak
merkatu ziralako
ordun erariyak.

Ta Galtzaundi. . . .

Entierrua nai det egitia
neri bigarren klasian,
lau zapatarik eramatia
gañera berriz aidian;
jota nabarra juaz
Empero kalia,
sobrekama balkoitan
naramatenian;
Arremele zubiyan
aizken aizkenian
zagi bat ardo jarri
kajaren gañian.

Ta Galtzaundi....

Ni oraindaño egin izandu
ditean testamentubak,
gaur bestetarikan izango dira
ayek danak borratuak;
eta orain firmatu
ere testiguak,
aditu baituzute
gaur nere kontubak
isillik iduki arren
nere sekretuak,
Dametako iturriyan
eran kuartillu bat.
Ta Galtzaundi. . . .

K a i k u

Neure andrea andre ona da,
gobernu ona du. . . auzuan!
artzen duelarik bere alaba.

Mari Katalin altzuan.

Aizazu!

—Zer nauzu?

—Gero're orrela munduan ere
biak biziko gerare gu,
Baldin bazare kontentu,
Baldin bazare kontentu!!
Nik beti frexko txorik tabernakua,
Sototxuan daraukat ardo gozua,

Ai, zer kontentu,

Ai, zer allegre,

Eskaintzen dauzut

Neure maitia:

Arrautzekuak eta Kaiku esnia! (berriz).

San-Blas alderat nindoalorik
Makiltxo baten gainean,
Arantza beltz bat sartu zitzauten
Uspela nuen oiñian!

Aai zazu!
—Zer nauzu?

.....

Baserritarrak

1

Baserritarrak gero gu
Ezin gentzake ukatu, (bis)
Baña kaletarrak bezin ongi (bis)
soñua jotzen degu (bis).

2

Kalian dira bi gauzak
Neri gustatzen zaidanak,
Ardotxo txuri goxua eta
Opill koxkor biguña.

Mutill zarraren despeira

XENPELAR

1

Dozena bat bertso berri
gaztien konsolagarri,
nere mingaña sanó dan arte
nai nituzke jarri;
begiratuaz elkarri,
andrerik ezin ekarri,
mutill zarren despeira zer dan
esango det zarri.

2

Egon zaitezte aditzen
zartuta nola gabiltzen,
gazte denboran ezkondu gabe
errex da gelditzen;
ajiak zaizkit berritzen
ta indarrak urritzen,
orain jarri naiz soldata gabe
anaya serbitzen.

3

Anayak naukat mendian,
koñatak aldamenian
gazte denbora akordatzen naiz
sasoya juanian,
ez det gularik janian,
gau ta egun beti lanian,
ondo egin da esker gaixtua
gero azkenian.

4

Iñor nai badu ikusi.
nere librua ikasi,
nekie pranko, esker gaistua
ta alimentu gutxi;
anaya daukat nagusi,
indarrak juanak igasi,
ontaz aurrera oyen mendian
biarko det bizi.

5

Ezurrak zaizki gogortu,
belarriya oso gortu,
modu ontan mutill zarraren
inbiriya nork ditu?

Andrerik ez nuen artu
orain anparo biartu,
praile naitare ezin nitek
komentuan sartu.

6

Koñatak nauka arrotza
ura emendik orruntza
lanan egin da ezker gaixtua
ta alimentu otza;
soldata gabe morrontza,
begiratua zorrotza,
animosua ez dago mutill
zarraren biyotza.

7

Lenago erromeriyen
dama gaztien erdiyan
jira ta buelta ibiltzen nitzan
fanfarroikeriyan;
orain tristura begiyan,
nago estado urriyan
pipa bat artu ortzian eta
subaren guardiyan.

8

Orañ galdu naiz ederki
merezi baña obeki,
neskatxak ere ez dirate nai
aterik iriki;
badute milla aitzaki,
gaztiaguak izaki
istimaziyo txarra nola dan
mutill zarrak dakit.

9

Mutilla bere zarrian
neskatxakin indarrian,
egun guztiyak oyen pardelak
nere bizkarrian;
gero illunabarrian
istimaziyo txarrian
ibiltzen naute soñeko galtzak
kendu biarrian.

10

Mutill zarraren pobreza
iñork ikusi nai eza,
eskarmantua dubenik bada
konsidera beza;
auxen da nere bajeza,
nork izango eztu pereza
illobentzat utzi biarra
bere interesa?

11

Nik dakadan ganantziya
badago zeñi utziya,
bi alkandora, galtza pare bat.
anayak autsiya;
au da esperientziya,
munduko diferentziya,
mutill zarrari tokatzen zayo
orlako jantziya.

12

Orra illoba gaztiak
mutill zarraren trastiak,
irabazirik eztu izango
oyekin sastriak;
zimurtu zaizkit estiak
begiyak daukat tristiak,
eskarmantua izan zazute
nerekin bestiak.

Mutill gaztientzat

1

Iparragirren bozian beaitut
bertso berriyak paratu,
Gipuzkoako Euskal-erritan
albanitzake onratu;

asko ezkongai gaude
gustokorikan gabe
ezin dutela topatu,
projimuari erakustia
ezta izango pekatu.

2

Konsejutxo bat lendabiziko
ezkongai dauden oyentzat,
esposatzia gauza pixuba
dala iruritutzentzat

dote eta arrio
eztubela balio
amoriyo fiñarentzat,
zergatik izan bearko duben
ill arteraño beretzat.

3

Neskatxa eder balientiak
baldin gustatzen bazazu
etorrizaitz Oyartzunera
emen billatukoituzu;
kale eta baserri
kolore zuri gorri,
ederrak franko badezu,
San Estebanez erromerian
ikusi nai badituzu.

4

Gustagarriyak oyen bentajak
dirade klase askotan,
ez errex arrapatuko
asi ezkerro izketan;
eskojitutakua
oyen errespetua
relijioyoko gauzetan,
Jaungoikuaren bildur aundi
aziyak dira gaztetan.

5

Errenteriyen dama oyekin
askotan det nik itz egiñ
perfeziyo ta umildadiak
eman lezaka atsegiñ;
daude ikasirikan
gurasuetatikan
ez dezatela utz egin,
nik ere ori egin nai nuke
betiko galdu ez nedin.

6

Bire batian gertatzen bada
topatutzeko fortuna,
saludatzia gustatzen zait
oyen egokitasuna;
aberats eta pobre
guztiyarentzat noble
igual da ez ezaguna,
orida gure Errelijiyuak
erakusitzen diguna.

7

Ostentaziyo batere gabe
izketan dute graziyak;
gorputzegoki pausua airoso
luju gabeko jantziyak;
beti alegre daude
tristurarikan gabe
ezaguerakin josiyak,
gizonak beziñ aundiya dute
lanian irabaziyak.

8

Elizan ere atenziyuaz
deskubritutzen dan ua
duda gabe ark adoratzen du
guziyen Soberanua;
aundiyak ta txikiyak
kristabak geran guziyak
ontan eduki kontuba
realidadez ez tu bidedin
gure remordimentuba.

Betroi bati

Xenpelar

1

Milla zortzireunda
irurogei ta biyan-
bertso berrik jartzera
nua Euskal Erriyan.
Betroi bat erosi det
Ernaniñ periyān,
ganantziya egingo
nuela ariyan,
tristura begiyan,
beti miseriyan,
ez aren premiyan
nere fameliyan,
Xenpelarrek dakizki
Errenderiyan.

2

Ostegun juandanian
amabost, Ernaniñ
betroi baten tratuba
gendubena egiñ,
Inaziyo saltzalle,
erostuna Permiñ,
emeretzi eskutu
genion eragiñ,
sabelian du miñ,
iñork ase eziñ,
artuari muziñ,
eztu nai edoziñ
atzetik bear ditu
zazpi medeziñ.

3

Oraindik gaztia da
ogei ta sei urte,
ernari omen dauzka
bost illabete,
nik ezdiyot igartzen
ala esan dute,
gezurra baldin bada

engañatu naute:
ezurak txit torpe,
zañak dauzka fuerte,
aragiya aparte
zeñek naidu merke
zikiro baten truka
emango nuke.

4

Orren arboletikan
datorren loria,
frutua konserbatzen
pare gabia,
alabatu nai diyot
bere onoria
umatzen baldin bada
jai zer poderia!
orren koloria
beltza ta moria,
juan zayo floria,
lenago obia
nere familiyaren
ondadoria.

5

Notizi txarrak dira
orrentzat auzotik,
besua ateria
urgun besotik,
eztula ta antsiya,
ukullo zulotik
desterratuko nuke
nik nere bototik,
amarra lepotik
grilluz orpotik,
makillaz ondotik
jotzen det gogotik,
eztiyo ajolarik
ezerengatik.

6

Buruba jarri zayo
lurrera begira,
belarriyak zintzilik,
jai zer segira!
albaitero guziyak
ikaratzen dira,
ikusi dutenian

ark daukan erida
bajatzen arida,
irutatik bira,
jau nère perdira!
nork naidu erdira,
baña ez det emango
Euskal Errira.

7

Begi bat itxua du
adar biyak motzak,
krixilluba diruri
orren kokotzak,
ikaratutzen gaitu
eztularen otzak,
farra egiten dute
Elizatik ontzak;
sano dauzka ortzak,
agiña zorrotzak,
tristura biotzak,
dantzan dabill otzak,
ez diyo onik egiñ
leku arrotzak.

Borroka dabilela
 juan zaizka adarrak,
 eziñ sujetaturik
 bere indarrak,
 talentu onak dauzka
 gure betroi zarrak,
 lurrera botatzen du
 elbiyaren kargak,
 ganadu elbarrak,
 juntura igarrak,
 jendiaren parrak
 ez dirade txarrak,
 burrunntziya diruri
 orren bizkarrak.

Nere betroyak ez tu
 auko loalia,
 egunero naizik
 ogi alia,
 alare ezin jaso
 lepoko joalia,
 burua makurtuta

zerbaiten galdia,
orren sandalia
ez da debaldia,
gauza on zalia,
bizkotxo jalia,
malezi asko duan
arrantzalia.

¹⁰
Kara iguala du
aurrian ta atzian,
basurdia diruri
zutik jartzian,
konsuelo bat daukat
nere biyotzian,
bizirik aterako
balitz ilbeltzian,
ori umatzian
esnia etxian,
gazta abatsian,
gazura arratzian,
belarrak gizenduko
du mayatzian.

Urtiak jua eta
ajiak azaldu,
daukanak obe zuen
artu ez balu,
etxetikan kanpora
ezin det bialdu,
joka asten naiz baño
laister urrikaldu,
aragiya galdu,
larrua ona du,
ezurra onradu,
frantzesak nai badu
laban kertenetako
obe det saldu.

Orra bertso berriyak
Xenpelarrek para
jakin dezala
nere euskara;
ustez alabatu det
betroyaren kara,
ukulluan estulka
pasatzen du gaba,
sano du ijara,
guziya tripara,
au gure ikara,
orlakua zara
desterratu nazazu
gezurra bada.

Gazte gera gazte

1

Gazte gera gazte
ogei bat urtetan,
ez egon pentsaketan
arma artzeko aurretan,
guazen bada guazen
koraje onetan.

2

Ama negarrez dago
aita berriz triste
etxian badituzte
iru anaya gazte,
laguntza badute
ni etorri arte.

3

Eldu naizenian
denborak egiñik,
baztarrak ikusirik,
franzesa ikasirik,
ama zaude ixilik
ez egin negarrik.

Iya guriak egindu

XENPELAR

Iya guriak egindu
badegu zeñek agindu,
ez oraĩndik umildu,
alkarregana bildu,
gerra nai duben guziya...
iberari kendu biziya!

2

Okasiyua prestatzen
lotan daudenak esnatzen
etzait neri guztatzen
maliziyan jostatzen
iñorekin ibiltzia
ark merezi du illtzia.

3

Gerraren billa gau t' egun
etsayaz arturik lagun
arrazoi ote degun
edo zer datorkigun
asitzerako pentsatu
fusillak nola dantzatu.

4

Ez naiz ni gerraren zale
baizik pakiaren alde
zeñek naiduen galde
berari tira alde
bala bat sartu buruan
aspertuko da orduan.

5

Umildadean alkarri
errespetua ekarri,
lege eder bat jarri
bizi gaitezen garbi,
ori deseo nuke nik
ixuri gabe odolik.

6

Gaitzak gerade umiltzen
eta pakean unitzen,
ez da errez ibiltzen
anayak alkar iltzen
zer dan entenditu gabe
ortan galduko gerade.

7

Guk gera iru probintzi
lengo legerik ez utzi,
oyeri firme eutzi
noiz anka bana autzi,
jayoko dira berriyak,
guk gera Euskal-erriyak.

8

Alabes eta bizkaino,
gu gera gipuzcoano,
aitak ill ziran baño
semeak oraindaño
legea degu guardatu,
letra zarririk ez ukatu.

Egunsentia

R. Artola

1

Onen etorrera da
biotz pozgarriya,
daguen denbora zeru
azpia garbiya.
Izarrak joaten dira
galdubaz argiya,
gelditzen dalarik, bat
ura illargiya,
itsasora jetxiyaz
lo artuban iya.

2

Beren izkeran agur
egiñaz Jaunari
txori txikiyak asten
dirade kantari;
gaisuak ontan diran
bitartean ari,
indarrak laburtuta
arratz illunari,
jaioera ikusten
zaio egunari.

3

Sortegiko aldean
azaltzen da ontan
zillarrezko zinta bat
zerubaren mugan
gero ugariturik
argitasuna an,
balegoke bezela
urrutiya sutan
eguzkia sortzen da
mendiaren puntan.

Illunabarra

R. Artola

1

Eguzkiya asten da
jetxitzen, jetxitzen,
dizdizera ederra
zaiola gutxitzen,
diamantezko printzak
zaizkanean galtzen
urrezko bola baten
itxura da jartzen,
eta geldi geldi-da
itsaspera sartzen.

2

Jirätzen dandénboran
itsaspe aundira
paletako kolore
guztiak an dira;
ain pintura politak
goien jartzen dira,
ustetzen da zeruba
auspez dala gira,
ezin azper liteke
berari begira.

3

Sarri beltzez jantzirik
zabalde guziya
txori txikiyen kantik
ez da aitzen iya,
izarrez apaintzen da
zerupe garbiya
eta bazter denari
eramamaz giya,
azaltzen da goi-farol
eder illargiya.

4
Amerika'ra nua

Semea

Amerika'ra nua
nere borondatez
emen baño obeto
izateko ustez.

Aspertuxia nago
emengo izatez,
adios, aita ta ama
ondo bizi bitez.

Aita

Lenogo're seme bat
ba'dut Amerika'n
amar bat urte dira
jon zela emendikan.

Topatzen ba-dut iñoiz
aren aztarnikan
esayot aita bizi
dala oraindikan.

Seme zarra Amerika'tik aitari

Kafia artutzen dut
egunian bi aldiz,
baita pasiatu're
nai añian zaldiz;
purua erre ta
osasuna berriz...
Aita, au bizi modua...
Donostiya'n ba-litz!

Frari maitagarriya

R. A-tola

1

Erari maitagarriya
zugatik daukat jarriya
argumento bat larriya;
indarra zera gorputzarentzat
kentzen dezu egarriya,
gauza istimagarriya,
bañan zauzkatigarriya
zerala engañagarriya.

2

Nik zu nor ziñan ez nekin
eta gogor nizun ekin,
fiyaturikan zurekin,
istante batez egin zenduen
nai zenubena nerekin,
biyok gera alkarrekin,
kontuak ziran gurekin
ondoren nor zera jakin.

3

Batek lezake espero
ondotxo eran ezkeru,
jarriko dubela ero;
lotsagarri ta lotsarik gabe
ibilliko dala gero,
korajetsu eta bero,
non nai egiñaz aldero.
modu txarrian bizi.

4

Indarra erariyak du
ezin litekena neurtu,
gizona lezake aurtu;
ustez tamañan bein eran eta
ninduen oso moskortu,
itzegin ezin ta gortu,
bista zitzaidan laburtu,
tratu on bat nuben artu.

5

Gustora eran banaben
ondoren pagatu nuben,
deskalabratu ninduben;
nere ondolik pasa zan batek
galdetu ziran zer nuben,
ia min bat alnuben
nondikan sentitzen nuben,
planta onen bat jo nuben.

6

Nai ezdubenak orditu
eta ondoren feritu,
kontuz eraten aritu;
erari klase guztiyak bere
espirituak baditu,
gure txintxurak nai ditu
gustoz eraten baditu,
naiz gero berak zatitu.

7

Mudatzen gaitu eranak
mundu onetan geranak
pruebak daduzka emanak
jениyo tzarrak ondutzen ditu
bai ere gaistotu onak,
aztu orduan esanak,
ota egindako lanak
naik gero damutu danak.

8

Nere moduan beste bi
eranak sobra erari
buelbaka ziran erori,
altxatu nai ta ezin altxarik
loitan zebiltzan igari,
jarri ziran guri guri
kasik etiziran agjri,
eran baizuten ugari.

Neska zar bat tentatzen

Txirrita

1

Dozena bat bertso
nai nituzke jarri
jayetan kantatzeko
entretenigarri,
nere publikatzia
izango da zarri
alabantzak emanaz
zenbait neska zarri.

2

Neska zar bat tentatzen
asi naiz lenguan,
izan ere alako
polita zegoan;
umill eta seriyo
itz egin genduan
baño gusto guziyak
ez dira munduan.

3

Izketan asi giñan
biyak gozo gozo,
ezkontzeko mandatu
egin diyot atzo;
leyotikan ujuka
ama ta bi atso:
—Ez dek arrapatuko
uste bezin mantso.

4

Ama preparatu zait
asarrez betia
lenbiziko ujuba:
... ¿Zenbat dek dotia?
ainbeste kostatako
alaba maitia
lastima izango dek
iri ematia.

5

—Zere fameliyari
errespetoz eldu
inozente daudenak
ez ditezen galdu,
diru truka alaba
nai zenduke saldu;
ñenago gustokorik
ez altzayo azaldu?

6

—Nere jakinduriya
arida atzetzen
errez dala ustedu
zenbaitek eskontzen
promesa on bat eginda
ezpazera ontzen
lanak izango dira
zurekin konpontzen.

7

Ez' dezu sinistu nai
egiya esandare,
zintzua nai genduke
pobria izandare,
çgure baztarrak baño
obiak nun daude
alabari sasoya
pixka bat juandare?

8

—Bere alabarentzat
orrenbeste fama,
nik ez det sinistatzen
aiziak darama,
zure baztarrian nik
egitia lana
izan liteke baña
ez det uste, ama.

9

—¿Ez aldala uste dek
orren errespuestik?
atarramentu onik
mutill zarrak ez dik,
nere alabak ez dauka
ezkontzeko keskik,
i ez bezelakua
nai ez ta dakazkik.

10

—Itz bat esan biar det
nere borondatez,
ezbanau iñork lotzen
grilluz edo katez,
ezkontzeko ideak
banituan ustez,
ardua maitatzen det
andriaren partez.

11

—Mutill malizioso
deabruz betia
ez dizut zabalduko
geyago atia,
beñere etzaitut izandu
biotzez maitia,
ni gandik libre zera
or konpon zaitia.

12

Orra amabi bertso
oraingo berriyak
bere andregayari
Txirritak jarriyak,
eman dizkit desgusto
ikaragarriyak;
negar egin lezake
nigatik arriyak.

Limosnatxo bat

P. M. Otaño

1

Mutill koxkor bat itxu-aurreko
zubela aldamenian,
gizon buru soil bizar zuri bat
bi makuluren gañian,
kale (i) ertzian ikusi nuben
iñora eziñ joanian;
ta bera nor zan jakin nayian
ingurutu nitzanian...
limosnatxo bat eskatu ziran
Jainkuaren izenian.

2

Zerbait emanaz galdetu niyon
altzan modu onenian,
jayotatikan al zeukan ala
gaitzak artuba mendian;
erantzun ziran:—Ez, semia, ez,
nik indarra nubenian,
ez nuben uste iritxizerik
onetara azkenian...
gaur limosna kat eskatzen det
Jainkuaren izenian.

3

Eta jarraitu zuben esanaz:
—Lengo gerrate denian,
ni aurren xamar ibiltzen nintzan
beti edo geyenian;
nekatu gabe aixa igoaz
aldapik luzienian;
etzan burura asko etortzen
gu ala gabiltzarian...
gero limosna eskatutzerik
Jainkuaren izenian.

4

Odola bero eta buruba
arrua daguenian
edozeiñ eran sartutzen da bat
alako itxumenian;
atsekabe ta negar samiñak
badatoz ondorenian;
sola erabait batek biziya
utzitzen ez dubenian...
limosnatxo bat eskatu biar
Jainkuaren izenian.

5

Iñoiz pentsatzen nere artian
ni jarritzen naizenian
gaur ere asko dirala joango
lirakiñak zuzenian,
ez luke iñor sinistatuko
ze pena ematen diran.
Ai! orla nintzan ni ere sendo
ta gazte nenguenian...
gaur limosna bat eskatutzen det
Jainkuaren izenian.

¡Ai! txorakeri asko egiten
da zentzurik ez d. nian,
sinista zazu ur au pasia
daukanaren esanian;
obiago da garai dan arte
alegintzia lanian,
negar egiñaz ibilli gabe
gero denbora joanian...
limosnatxo bat bildu eziñik
Jainkuaren izenian.

Txepetxa

P. M. Otaño

1

Askotan esan izandu dute
gizon ikastun argiyak,
nola pistiyak izan litezken
gure erakuslariyak
erlia da bat aipatzen dana,
o! zer lan arrigarriyak
jartzen dituzten gure aurrian
onek eta txingurriyak!
Txepetxak berriz erakusten du
ainbeste nola aik biyak.

2

Euskal lurreko txorietan da
txikitxuena da bera,
gaztañ kolore bakarrekua,
nai bada ez da ederra;
begi argiyak, buru xanpala,
moko tentia aurrena,
gorputza motza, anka laburrak,
xaltokako ibillera,
xalapartako egalariya
eta kantari ergela.

3

txotx batek aisa jasoko luke
nola karga gutxi duan,
bañan gustatzen zayo jartzia
adar sendoxiaguan;
amildu arren ez leika galdu
dakiyelako eguan;
bañan arkitzen baldin bada ere
buznizko aldamiyuan,
iru-lau aldiz xanpatutzen du
seguro ote daguan.

4

Udaberriyan lendabiziko
kabiya txepetxarena,
azaldutzen da ta ezaguna,
goroldiyozkua dena;
arbol gerriyan, untza tartian
du lekurik maitena,
ta gizon askok ikusitzian
iritxpirian daguena,
esan oi dute:--zer konfiantza
txori txar onek dubena!

5

Ta edozeñek esan lezake
berari begiratzian;
arretarikan ez daukala
egiñ leyoken gaitzian;
ez-idurikan ark kabiyan
beste zuluat atzian
egitan diyo, andik joateko
aurrerakua tapatzian;
erakusiyaz pentsa zegula
nola atera sartzian.

Begiyak farrez farrez

1

Begiyak farrez farrez,
biyotza negarrez;
Alaxen juaten nintzan, maitea
zungandik, dolorez.

2

Ama umiak neri
parian pasata
eztik agurrik egin, maitea,
burua jirata.

3

Amak umia neri
ez agur egiteko
¿Zer palaziyo dauka, maitea,
zuri emateko?

4

Palaziyo eder bat
aitzaren gañian,
ez da aizerik sartzen, maitea,
ez dabilenian;
ez da euririk sartzen, maitea
egiten eztunian.

Ikusten duzu goizean

Elizanburu

1

Ikusten duzu goizean,
Argia asten denean,
menditxo baten gainean
Etxe txikitxo aitzin txuri bat
—Lau aitz andiren artean,
iturritxo bat aldean,
txakur txuri bat atean?
An bizi naiz ni pakean.

2

Naiz ez den gaztelua
Maite dut nik sor-lekua
Aiten-aitek autatua;
Etxetik kanpo zait iduritzen
—Nonbait naizela galdua,
Nola an bainaiz sortua,
An dut utziko mundua,
Galtzen ez badut zentzua.

3

Ez da lurrean gizonik
Prinzerik ez erregerik
ni baino obeki denik;
badut andrea, badut semea
—badut alaba ere nik,
osasun ona batetik,
ontasun aski bertzetik,
zer naiko dut bertzerik?

4

Goizean asiz lanean
arratza^a eldu, denean
nagusi naiz maenean;
Giristino bat ona dut artu
—nik emaztea artzean,
ez du bijili egunean
sartuko uste gabean
txingar-esur bat eltzean.

5

Etxean ditut nereak
Akilo, aitzur, goldeak,
Uztarri eta edeak;
Jazko biaz ditut oraino
—Zoko guziak beteak
Nola iragun urteak
Ematen badu bertzeak
Ez gaitu iltzen goseak.

6

Landako ira beiak
Eznez anpatu ditiak
Aratze eta ergiak;
Bi idi andi kopetazuri
—Bizkar beltz, adar andiak
Zikiro, bildots guriak,
Auntzak eta ardiak,
Nereak dire guziak.

7

Ez degu bear lurrean
Aise bizirik etsean
Utzi laguna gabea;
Yende-bearrek ez dute yotzen
— Gure etxeco atean,
Non ez duten mainean,
Otuntz-ordua denean
Lekua gure aldean.

8

Piarres nere semea,
Naiz oraino gaztea,
Da mutiko bat ernea;
Goizean goizik bazken ercira
— Baparama artaldea;
Baitu nere egitea,
Segituz nere bidea
Ez du galduko etxea.

9

Nere alaba Katalin
Bere ameka urtekin
Ongi doa amarekin;
Begiak ditu amak bezela
—Zeru-zola bezain urdin;
Oraingo itxurarekin
Uste dut denborarekin
Andre on bat dion egin.

10

Nere emaste Maria
Ez da andre bat andia,
Bainan emazte garbia;
Musu batentzat etxean badut
—Nik nai dudan guzia;
Galdegiten dut grazia
Dudan bezela asia
Alabatzeko bizia.

Intxauspeko alaba

1

Intxauspeko alaba dendaria
Goizian goizik jostera juailia,
Nigarretan pasatzen du bidia,
Aprendiza da konsolazalia.

2

Zelian den izarrik ederrena
Jin balakit argi egitera,
Juan nainte maitiren ikustera,
Ene penen ari erraitera.

3

Mundu onetan pena gabetarik
Bizitzeko nik eztut perillik;
Maitatu dut ukenen eztudana,
Orrek beiterit biotzian pena.

4

—Maitatu duzia ukenen eztuzuna
Orrek dereizia biotzian pena?
Mait'ezazu uken diokezuna
Eta juanen da zure biotz mina.

5

—Mertxikaren floriaren ederra!
Barnian dizu etxurra gogorra;
Gaztia nitz, bai eta loriusa,
eztizut galtzen zure esperantza.

6

Adios beraz, ene maitia adios!
Adios dereikut orai sekulakoz;
Ezkuntzite plazer duzunareki,
Eta begira ene arrakunruti?

7

—Zer izanen da zure arrakuntria?
Zer al da zure egin ala?
Zerbait kasu nitan gertatzen bada
Sujet berri bat zutan izenen da.

8

Zu eta ni, biak ginaudengan,
Akor ginen itz batik barnian;
Eta orai denbora joan denian
Zu etzirade zoure erranian.

9

Sorouatako plazala jaikiturik,
Gizon gazte galzerdi txouririk,
So egin dut, ezin ikousirik,
Pierregi, zoure parerik.

Ardo kanta naparra

Ardan gorri naparra,
Ez edan neurri gabe
Ibilli, arren, poliko,
Orain pensatu ez gero,
Utzegiñok zuzendu.

a a a

Ardan gorri naparra
Neurriz dala su-garra
Geyegian da txarra,
Ardan gorri naparra

e e e

Ez edan neurri gabe
¿Nola izan zeure jabe
Urdalla egiñik labe?
Ez eran neurri gabe

iii

Ibill, arren, poliki,
Naiz andi ta naiz txiki
Begiak ondo iriki,
Ibilli, arren poliki.

ooo

Orain pensatu, ez gero
Geiegi ez jarri bero,
Gizon zeran ezkeru;
Orain pensatu az gero

uuu

Utsegiñak zuzendu
Jainkoaz gogoratu
Alkar ondo maitatu;
Utsegiñak zuzendu.

Domingo Kanpaña

Bilintx

Mando baten gañian
Domingo Kampaña,
Ez dijoa utsikan
Mando orren gaña;
Azpiyan dijoana
Mandoa da, baña
Gañekoa, ere, bada
Azpikoa aña.
¡Mando baten gañian
Bestea, alajaña!

Zaldi baten bizitza

Bilintx

1

Orra sei bertso kale-
garbitzalleari,
zeña bere izenez
dan Joxe Mari:
erreza lezazkike
iru Ave Mari,
indarra etortzeko
zaldi zuriari,
animali ori
urruki zait neri,
falta du ugari
egoteko guri,
kartoyakin egiña
dala diruri.

2

Goizero biar diyo,
eraso lanari,
zikiñak bildu arte
erri danari,
berriz ere obeto
bizi ez danari
nabarbenduko zaizka:
ezurrak ugari;
ez naiz txantxaz ari,
eta Joxe Mari,
zaldi gaisoari
nai aña janari
eman zayozu, ea
jartzen da lodi.

3

Dago eskeletuen
itxurak arturik,
diña jan ezak dauka:
orrela galdurik!
¿Nola ez da egongo
oso argaldurik.

irukitzen badute
askotan baraurik?
Zaldi orri nik
ez det esperorik
ezer ikusterik
ezurak besterik
ez du beintzat izango
odol golperik.

4

Lana sobre du bañan
janaria falta,
urrikagarria da
dakarren planta:
gaixoak ez lezake
luzaro aguanta,
flakiarekin ezin
mugitu du anka,
pentzu gutxi jan ta
kalean jiraka,
gaizki bizi da ta
indarririk ez daka,
ezin karriatu du
karzo bat kaka.

Munduan ez liteke
zaidirik arkitu,
duenik orrek aña
pena sufita:
biotzik gogorrena
lezake kupitu:
ez du zartzera txarra
gaixoak atxitu,
pausua nagitu,
ezin du mugitu,
zaldi orrek ditu
zazpi espiritu,
bestera bizirikan
ezin gelditu.

Gisagaisoaz danak
pena artzazute,
baldin biotz biguñak
badituzute:
asisan egunetik
eta orain arte,
serhitzuba egin du

errian baztante
igande ta aste
jayarekin naste
makiña bat urte
pasa dizkizute;
orain erretirua
mercezi luke.

ZALDIAREN ERIOZA

Indarra zekan arte
zikiña karrayo,
eragiten zioten
makiñabat sayo,
¡bañan miñez jarri da!
¡indarra juan zayo!
¡nekearen pagua
balaz eman zayo!

OBIZDEA

Azkenak emen daude
zaldi argal baten,
zeñak ez zuen iñoiz
pentzu on bat jaten
¡gelditu zaizkan mami
puzkak eramaten
beliak lan askorik
apenas daukaten.

Portajiarena

Bilintx

1

Egunaren izena
Ez dakit nola zan,
Bañan señalagarri
Partidu bat bazan
Pillotan jokatzeko
Oyarzungo plazan.
nai det nere orduko
Gertaera esan
Urrengoan beste bat
Eskarmenta dezan.

2

Partiduba jokutzen
Bukatu zanian,
Ostatura joan nintzan
Zuzen zuzenian;
Mayera jana ekartzen
Asi ziranian,
Apaiz bat serbitzen zan
Aurren arrenian;
¡Sartu zan makiñabat
Arren barrenian!

3

Nere ditxa guziak
Badute ajia
Noski naiz Jaungoikoak
Astutzat lajia;
Gosiak egin nuben
Ango biajia;
Kulpa zuben arentzat
Daukat korajia;
¡Apaiz batek jan zuen
Nere potajia!

4

Zintzur ona zubela
Ondo siñaliak
Eman zituben apaiz
Baberrun zaliak;
Dozenaka tragatzen
Zituben aliak,
Maskatu ere gabei
Tripasai jaliak;
Alako aisa nola
Antxua baliak.

5

Tragatutzen zituben
Igar ta eseak,
Ez ziran arren diña
Zetozen klaseak;
Agertu orduko zeuzkan
Tripara paseak,
Kortesiya gabeko
Txapela luzeak;
Arrek naikuba jan ta
Ni berriz goseak.

6

Gerostik ostatuban
Sartu ordurako
Galdea egin gabe
Ez det nik faltako
Egun artako apaiza
Otedan arako;
Ez apaiz jaun guziak
Berdiñ diralako,
Baizik batek bildurra
Sartu ziralako.

Juana Bixenta Olabe

Bilintx

J. B.- Nagusi jauna, auxen da lana:
amak bigaltzen nau bedorregana.

N. J.-¡Ai bidalduko bazinduke maiz!
zu ikusi ta konsolatzen naiz,
sinista zazu.

¡oso zoraturikan naukazu!
¿Orren polita nola zera zu?

2

J. B.- Amak esan dit, etxeko errenta
pagatzeko dirurik ez zuben ta,
ia egingo diyon mesere
illabetian geyenaz ere
itsodotia,
bada zierto dala ematia
pasa baño len illabetia.

3

N. J.- Logratutzia, errez alare,
naiz ori ta beste zer nai gauzare
seguru dala, esan amari
zu baldin bazatoz mandatari
Dударик gabe,
nere borondatiaren jabe
zu zera, Juana Bixenta Olabe.

4

J. B. Beraz, bertatik nua etxera
poz aundi bat amari ematera.
Orain ariyo, nagusi jauna
presaka juañ biat amagana

N. J.- Ez zuazela,
portatu zaite nik nai bezela:
Gaur etxera juañ ez zaitezela

5

Zuben etxia dago urruti,
birian zer gerta izan bildurti
baña iya pasa da eguna,
Arratsa berriz dator illuna.

Orain juatia

txartzat iduki, nere maitia;
Gaur emen bertan gera zaitia

6

Ez juan etxera, bire oyetan
gabaz, bakarrik eta illunpetan.

Kontura erori zaitia zu:

Gabaz illunpian juan biazu

Peligro ar idiz,

eta obe dezu eun aldiz

Biyar goizian juan egun argiz.

7

J. B.-Ezetz etsiya egon liteke:
Ni əmen gelditu ezin niteke
Amak espero nau gaberako,
eta ark espero naubelako
Juan biar det nik.
Alaba ikusi gabetanik
amak izango ez luke onik.

8

N. J.-Emen zuretzat dira parako
jaki txit gozuak afaiterako,
erariya berriz Jaungoikoa
illa piztutzeko modukoa;
Ardo ondub?,
ontzen urtietan egonduba.
Malagatikan da bialduba.

9

J. B.-Jauna berorrek, bañan alferriz,
badaki armatzen lazo ederrik.
lazua eiz bage gera dedin,
nere etxian ditut egin
afaldu ta lo,
nayago ditut ango bi talo
ta ez emengo milla erregalo.

10

N. J.-Biyotz nereko dama polita:
azmoz muda zaite, auxen tori ta
amasei duroko urre fiña
sendatu nai zazu nere miña.

J. B.- Ez jauna, ez, ez;
merezi bezin kopeta beltzez
esango diot ezetz ta ezetz.

11

N. J.-Gañera berriz, Juana Bixenta,
utziko dizutet etxeko errenta;
kito zor dirazuten guziya
kunplitzen banazu kutiziya.

J. B.- ¡Lotza gogorra!
sufritzen dago gaur nere onra;
penaz malkuak darizkit... ¡orra!

12

N. J.-Nik ditut kulpak; ez egin negar,
orlakorik ez nizun esan biar.
animan sentitzen det miña
zuri ofensa ori egiña.

¡Maldiziyua!

ez dakit nun neukan nere juiziyua,
eskatzen ditzut barkaziyua.

13

J. B.-Barkaziyua du ta eskatu,
nere biotz onak ezin ukatu.
erakutsi ditalako, Jauna,
gaitz egiñaren damutasuna,
konforme nago,
ez eginta ofensa geyago,
gaurkua oso astutzat dago.

14

N. J.-¿Berriz nik egin zuri ofensa?
arren orlakorik ez bada pensa,
zauzkatik neskatxa fiñ batetzat,
eta gusto aundiz emaztetzat
Artuko zaitu,
biyotzelikan esaten dizut,
zuretzat ona baderizkizut.

15

J. B.-Ori egiaz baldin badiyo
neregana egon liteke fiyo,
bañan usatubaz kortesiya
ama neriari lizenziya
eska bezayo.

N. J.-Ori gustora egingo zayo;
biyar goizian juango natzayo.

16

J. B.-Banua orain.

—Atoz onuntza
birerako artu zazu laguntza.
Adi zazu, morroi Joxe Joakin:
etxera farolan argiyakin
Aingeru oni
gaur zuk laguntzia da komeni
kezketan egon ez nariyen ni.

17

M.— Aingeru ari lagundu eta
orra jauna, egiñ ostera buelta.
Birian bai bildurtxo zan bera
bañan allegatuta etxera
kontentu zegon,
orain kezketan ez du ezer egon
oyera juañ, ta pasatu gabon.

18

Eldu zanian urrengo goiza
nagusiyak zuben kunplitu itza.
Juan zitzayon amari etxera
andretzat alaba eskatzera.
Amak txit firme,
artuta gero milla informe,
gelditu ziran biyak konforme.

19

Andik zortzibat egunera
edo amar ziran ez dakit bada...
ez, amar ezin zitezken izan...
andik zortzi egunera elizan
ezkondu ziran.

Ezkondu du ta etxera segiran.
¡Jendia franko bazuten jiran!

20

Bost illabete edo sei ontan
ez dirade beti egondu lotan.
Eman dute zenbail jira-bira,
eta gozatutzen bizi dira
ditxak ausarki

obeto ezin litezke arki:
espero duten aurtxo bat aurki,

22

Dama gaztiak, ez egon lotan,
begira zaitezte ispillu ontan.
gustatu ta ¡birtute ederra!
andretzat artu bere maisterra
du nagusiyak,
orla irabaztera graziyak
saya zaitezte beste guziyak.

K u - k u

I


Ku-kubak kantatzen du	
Mayatzian	ku-ku
andriak badituzte	
milla matrikula	ku ku
oyian, etzaten dira,	
gaxorik daudela	
estomako txulotik	
sentitzen dutela	ku-ku
eta zergatik	ku-ku
txokolatiagatik	ku ku
mama goxuagatik	ku-ku
mistelagatik	
kariñelagatik,	
bizirik ez alai jaikiko	
Su emanta baizik	ku-ku

2

Ku ku kantatxuak	
ondo aritzendu	ku-ku
berarekin postazun	
ona sentizendu	ku ku
tripako miña aitzakin	
eizanik oyera	
ondo egiten dute	
mintzuen papera	ku-ku
eta zergatik	ku-ku
piper opillagatik	ku-ku
arkumiarengatik	ku-ku
ardo onagatik	ku-ku
aaparragatik,	
bizirik ez alai jaikiko	
su emanta bizik.	ku-ku

3

Zenbat barren triste du	
ku-ku kanta eku	ku-ku
biyotzean askotan	
sentitzen du	ku-ku
ondo senti etzala	
esanik batzutan	
aitzekiz gelditzen da	ku-ku
oi gainean lotan	ku-ku
eta zergatik	ku-ku
mutur akerragatik	ku-ku
rape-autzarengatik	
txurrutagatik	
Sagarduagatik	
bizirik ez alai jaikiko	
su emanta baizik	ku-ku




ARKIBIDEA

¡Ay, au dolorea!	3
Gernikako arbola	5
Jerolimo	9
Agur nere biotzeko	10
Ume eder bat	12
Gitarra xarixo bat def.	14
Ara nun diran	16
Ezkongayetan	18
Nik zuri, zuk neri.	21
Zibillak esan naute	22
Bein batian Loyolan	24
Ardua eran da	26
Mertxikaren	26
Kontxesiri	27
Ene izar maitia.	32
Goizean sartu	34
Markesaren alaba.	35

Senarrak emaztiari	46
Txantxangorriya	51
Ezkonduak eta ezkongai	54
Asto gaxua	56
Amardun	58
Ardoa	59
Orain bi milla urte igaru	63
Albaiteruen salan	70
Galtzaundi	71
Kaiku	76
Baserritarrak	78
Mutill zarraren despeira	79
Mutill gaztientzat	85
Betroi bati	89
Gazte gera gazte	98
Iya guriak egindu	99
Egunsentia	102
Illunabarra	104
Amerika'ra nua	106
Erari maitagarriya	108
Neska zar bat tentatzen	112
Limosnatxo bat	118

Txepetxa	122
Begiyak farrez	125
Ikusten duzu goizian	127
Intxauspeko alaba	132
Ardo kanta naparra.	134
Domingo Kanpaña	136
Zaldi baten bizitza	137
Potajiarena	142
Juana Bixenta Olabe	146
Ku-ku	157



**EUSKAL ERRIKO
KANTA ZARRAK**

Tomo II

**IMP. MACAZAGA
RENERIA**



Donostiyako iru damatxo

1

Donostiyako iru damatxo
Errenteriyen dendari
josten ere badakite baña
ardua eraten obeki;
eta kriskitin, kraskitin,
arrosa krabelin,
ardua eraten obeki.

2

Donostiyako Gaztelupeko
sagarduaren gozua,
antxen eraten ari nitzala
autsi zitzaidan basua;
eta kriskitin, kraskitin,
arrosa krabelin,
basua kristalezkua.

3

Donostiyako iru damatxo
irurak gona gorriak,
sartutzen dira tabernara ta
irtetzen dira ordiak ;
eta kriskitin, kraskitin,
arrosa krabelin,
irtetzen dira ordiak.

4

Donostiyako iru damatxo
egin omendute apostu,
zeñek ardo geyago eranda
zein gutxiago moskortu ;
eta kriskitin, kraskitin,
arrosa krabelin,
zein gutxiago moskortu.

6

Donostiyako iru damatxo
Errenteriko kalia,
egunez oso triste ibilli
bañan dantzatu gabian;
eta kriskitin, kraskitin,
arrosa krabelin,
bañan dantzatu gabian.

7

Donostiyako neskatxatxuak
kalera nai dutenian:
—ama piperrik ez dago eta
banua salto batian;
eta kriskitin, kraskitin,
arrosa krabelin,
irtetzen dira orrivak.

Donostiyako neskatzatxuak
mandatuen aitzekiyan,
mutillarekin, egoten dira
kalian jolaskeriyan;
eta kriskitin, kraskitin,
arrosa krabelin,
pozez algara aundiyan.

Donostiarrak ekarri dute
Getariyatik akerra,
kanpan torrian ipiñi dute,
Aita santutzat dutela;
eta kriskitin, kraskitin,
arrosa krabelin,
Aita santutzat dutela.

Donostiako arrantzaliak
dira txit gizon bapuak,
Gaztelupeko sagarduakin
egiten ongi traguak;
eta kriskitin, kraskitin,
arrosa krabelin,
maiz bustirikan abuak.
Arrosatxoak bost osto ditu

1

krabelintxuak amabi,
Mari Joxepa nai duben orrek
eska biotza amari;
eta kriskitin, kraskitin,
arrosa krabelin,
eska biotza amari.

Ez dago arrosarikan

Ez dago arrosarikan
arantzarik gabe, (bis)
ez ameriorik, neure maitia,
penarikan gabe ¡ai! ¡ai!

—
Biyotz bakarra daukat
¡ai milla banitu!,
milla zeuretzat, neure maitia,
emango nizkitzu ¡ai! ¡ai!

—
Neure maite polita
nola zera bizi;
zortzi egun onetan, neure maitia
etzaizut ikusi ¡ai! ¡ai!

—
Uste det zabiltzala
ni gandik igesi;
¡ez didazu ematen, neure maitia
atzekabe gutxi! ¡ai! ¡ai!

Arbola bat

F. Arrese Beitia

1

Arbola bat zan Paradisoan
Jaunak apropos jarria,
Mundu guztiak artu egion
Lotsa ta itzal andia,
Bere azpian bizitea zan
Aita Adanen gloria,
Andik kanpora zer topau eban
;Ezpada negargarria?

2

Arbola santu aren azpian
Bizi zan Zeruan legez,
Euskazalako atsegin danak
Eta mekerik baperez ;
;Ai begiratu baleutsa beti
Lotsa on eta itzalez !
Mundua etzan gaur aurkituko
Onenbeste atsekabez.

3

Arbola bat zan Bizkayan bere
Noure anaya laztanak,
Zeiñen azpian, pozez beterik
Egoten ziran asabak,
Kerispe zabal artan jarririk
Eginda euren Batzarrak,
Bustarri baga, nasai ta libre,
Bizi ziran bizkaitarrak.

4

Bene azpian umildu ziran
Errege Gaztelakoak,
Eta lekurik ez oben izan
Sekula barriz moroak ;
Atzera gura badogu izan
Libre len giñan lakoak,
Itxi daiguzan erdaldunentzat
Erdaldun diran kontuak.

5

Astu daiguzan geure artean
Izan diran aserreak,
Izan gaitean anaya eta
Euskaldun zintzo garbiak ;
Beter guraso zaarren fedea,
Betoz asaben legeak,
Bere negarrak leortu daizan
Ni jayo nintzan Erriak.

6

¡ O neure Erri maite maitea !
Zakustaz triste negarrez,
Zure alabak euren buruak
Beltzez estaldu dituez,
Trentza mardoak tiraka atera
Ta sutara bota dabez,
Gaur euskaldunak dirala orrek
Ezin ezaguta leikez.

Isildu ziran neskatxen kantak,
Mututu artzaiñ txistuak,
Zelai zabal ta jolas-lekuak
Gaur dira basamortuak:
Arroak beera itxasoruntza
Doaizan ernekatxoak,
Gau eta egun txilioz dagoz
¡Ai gara gaztelakoak!

Bakarrik dakust pozgarritxo bat
Euskaldun amen fedea,
Benturaz oneok bigundu leike
Jaungoikozko aserrea,
Eta zerutik jatxi berriro
Galdu zan libertadea,
Mundua mundu bizi dakigun
Gernikako Arbola.

Pello Joxepe

1

Pello Joxepe tabernan dala
aurra jayo da Larraulen,
etxera juan da esan omendu:

—Ez da neria izanez
bere ama topa dezala
aur orrek aita zein duben.

—¡ Au pena ta pesadumbria!
senarrak aurra ukatu,
aurra onentzat beste jaberik
ezin liteke topatu;

Pello Joxepe, biyotz neria,
aurr'orrek aita zu zaitu.

3

Fortunatua nitzala baño
ni naiz fortuna gabia,
agure batek eramán ditu
 umia eta andria,
aurra beria bazuben ere
andria nuben neria.

4

Joxe Agustin, nere biyotza,
arren aditu nazazu,
beti orrela egonda ere
 neke aundiya daukazu;
askoz obeto izango zera
arren ezkondu biezú.

5

Pello Joxepe, nere biyotza,
zor dizut milla graziya;
siraskatikan etortzen alda
 donzellatasun guziya,
ni igualian nayago nuke
amak maitetxo aziya.

6

Bonapartian serbitzen dauzkat
iru anayak Londres'en
aren senide zazpi leguan
 governadore banitzen;
dontzellatasuna zertarako dan
nonbait etzaitut aditzen.

7

Nere etxian bi ollo dira
batek baduka kiyua,
ollarra berriz kukurruka
 kantora gora dijua;
jaunak orra despedida ta
asko da dibersiyua.

Mendian zoin den eder

Mendian zoin den eder eper zango gorri,
Ez da bear fidatu itxur'eder orri;
Ene maiteak ere bertzeak iduri,
Neri itz'eman eta gibelat ilzuli.
Ene biotza duzu zu ganat erori (berriz)
Eta zurea aldiz arria irudi;
Ene begi gaitxoak nigarrez itxurri.
Airea zaar eta kantorea berri:
Ene maite pollita zira txarmegarri;
Kolore txuri-gorria arrosa iduri,
Mundurat jina zira ere iargarri.
Eldu naiz zure ganat arrosa ederra
Ezin bertze untarik nezazun atera,
Txangrin untan iltzeko banindu malurra
Botizean zinuke betiko nigarra.

Lili bat ikusi dut

1

Lili bat ikusi dut baratze batean
Deseratzen bainuke nere saetsean;
Lorea ez du galtzen, udan ez neguan,
Aren parerik ez da bertse bat munduban!

2

Deliberatu nuen gau batez joaitera,
Lili arraro aren eskurat artzera,
Ez bainuen pensatzen beiratzen zutela!...
Gau artan uste nuen, an galtzen nintzela!

3

Exenplu bat nai dut eman guzieri
Eta partikularzki jende gazteeri:
Gauaz ibiltzen dena ez da zuur ari;
Ni begiraturen naiz, eskerrak Jaunari!

Amodiozko solasak

1

Ene maitia barda nun zinen
Nik bortañua joitian,
Buruyan min ere nuyen eta
Dударik gabe oian (berriz).

2

Barda arratsian ametsetarik
Botz bat entzun dut txarmantik
Eztitasunez betia baitzen.
Arren parerik ez baitzen (berriz).

3

Eztitasuna gauza ederra
Nork nezake ni kondena,
Gauaz loale egunaz ere
Errepausurik batere (berriz).

4

Txarmagarria lo ziradia,
Eztitasunez betia,
Lo baitzirade iratzar zite.
Eiziradia loz ase (berriz).

5

Arboletan den edarrena da
Oian beltzean pagoa
Itzak ederrak ditutzu, baina
Bertzetan duzu gogoa (berriz).

6

Nik zure ganik despegitzia
Iduritzen zaut iltzia,
Iltzen ez baniz biurtuko niz
Indazu bi pot, baitia (berriz).

Iruten ari nuzu

1

Iruten ari nuzu,
Kilua gerrian (berriz).
Ardura dudalarik (ber.)
Nigarra berrian. —

2

Nigar egiten duzu
Oi suspirarekin! (ber.)
Kontsolaturen zira (ber.)
Oi denborarekin!

3

Ezkon-miña dutala
Zuk omen diozu (ber.)
Ez dut amore miñik (ber.)
Gezurra diozu.

4

Ezkon-miña dutenak
seiñale dirade (ber.)
Matel ezurrak idor (ber.)
Koloriak berde!

Zerbait esan eskero

Zerbait esan ezkerro
beriala disputa;
zertan jarritzen zera
ola zapuztuta;
nik eramango zaitut
kabitik ostuta,
etxian jostatzeko
eguaq moztuta.

Gaubez gaubez

Gaubez gaubez
gaubezko ibillerak
ez dirade
ez dirade onak
berriz ere
laburtuko zaizkizu
aurretikan
aurretikan gonak.

Iduzki denean

1

Iduzki denean, zoin den eder itzala
Maitia mintzo zira plazer duzun bezala;
Egiten duzula
Milla disimula
Iñorant zirela,
Erraiten duzula
Bertzetaik naizela,
Falsuki mintzo zira.

2

Zazpi urtez beti jarreiki zait ondotik
Erraiten zaundula ez dut bertze maiterik
Itzer fidaturik
Nago trongaturik
Gaixoa tristerik
Ez du eiten loirik,
Ez jan edan onik,
Maitia zuregaitik.

3

Oi! ene maitia, nik ere zure gaitik,
Pasatzen dizut nik zenbait sabeleko min
Ezkonduz zurekin
Samur aita amekin
Bear nindeite jin,
Ez dakit zer egin
Ez eta nola jin,
Ni neure etxekoekin.

4

Oi! ene maitia, nun duz'izpiritua
Fediaren jabe, aita deraukazuia;
Atxikazu fedia
Maita bertutia
Libra kontzientzia,
Munduko bizia
Labur da maitia
Ez zaitela kanbia.

Txori errusiñola

1

Txori errusiñola udan da kantari
Zeren ordian baitu kanpuan janari;
Nēguan ezta ageri, balinban ezta eri
Udan jin baledi,
Konsola nainin ni.

2

Txori errusiñola orore geien,
Bestek beño obeki ark beitu kantatzen;
Arek du ingañatzen mundia bai tronpa-
Bera eztut ikusten [tzen
Bai boza entzuten.

3

Botz aren entzun erraturik nago;
Ni ari ullant eta ura urrunago;
Jarraiki ninkirio bizia gai artino;
Aspaldi andian
Desio ori nian.

4

Txoria zuñen eijer kantuz oienian!
Niaurek entzun dizut igara gauan
Eia! guazen, maitia, bidiak ikustera;
Entzuten baduzu,
Txarmaturen zutu.

5

Amak utzi nundizun bedats azkenian;
Geroztik nabilazu egalez airian;
Gaiak urtuki nundizun sasiño batetara
An zuzun txededa,
Oi! ene molurro!

6

Txoria, zaude ixillik ez egin kanturik:
Txoria, zaude ixillik ez egin kanturik:
Eztuzu profeiturik ni ola penaturik,
Ez eta plazerik
Ni tunban zaturik.

7

Bortiak txuri dira elur dienenian,
Sasiak ere ulun osto dienenian,
Ala ni malerusa zeren an sartu nintzan
Jun banintz'aitzian
Itzulitzen nintzan.

8

Txoria, zaude ixillik, ez egin negarrik:
Zer profeitu dukezu ola samindurik?
Nik eramanean zutut txedera latxaturik
Oiko bortutik
Ororen gañetik

Ardo on ontarik

J. P. P.

1

Ardo on ontarik

Basua beterik

Lagun dezagun edan:

Gure txangriñak eta inketurak

Ito ditzagun ontan.

Zer naiduk amodiotik?

Ar penak maiz baitik ondotik

Baña ardo onak

Gure biotzak

Alegratzen dit (bis).

To lagun, sinesnezak,
Andriak aparte utzizak
Libertadia
Eta pakea
Preferitzak,
Kendutzak betikoz Benus,
Eta ar laguntzat Bakus,
Promes deyat
Bizi on bat
Orrela segituz (bis).

Gure zori oneko

Gure zori oneko ezkondu biarra ija jai!
orrek ekarri digu begira negarra;
ez gendu iritxi bizi modu txarra,
gu baño obeto zioz Praisku mutil zarra.

.....

Gaztetasuna bainerabilla

1

Gaztetasuna baiñerabilla

Airian ainara bezela,

Gabak igaiten ditut ardura

Egunak balira bezela.

Oi, oi! Ardura noala maitia gana!

2

Maite nauzula zuk erraitiaz

Ni ez niz alegeratzen,

Baizikan ere nere biotza

Dautazu arrats illuntzen,

Oi, oi! Zeren ez nuzuz bein uzten!

3

Maitetasunik nik badudala
Ez zerauzu ba iduri?
Itsaso dena igaran niro
Zuregantikan igeri,
Oi. oi! Zirelakotz ain txoragarri!

4

Txoragarria ni baniz ere,
Ez nintake izan zure;
Nitaz atsegin duten bertzetik
Lurrean anitz baitire,
Oi, oi! Jainkoaz otoi urrun zaite

Uso txuriya

1

Uso txuriya aidean
ederragoria mayean
zure parerik ez du arkitzen
Españia guziyan
ez eta ez Frantziyan
eguzkiyaren azpiyan (bis).

2

Uso txuriya errazu
nora juaten zera zu,
Españiako portu guziyan
elurrak betiak dituzu
gaurko zure ostatu
gure etxian badezu (bis).

3

Uso txuriya agertu zaigu
Frantziago mugatik
lumatxoren bat falta du
egotxo biren erditik,
luma uraxen falta ez balu
ez du munduan parerik (bis).

4

Ez nau izutzen elurrak
ez eta gabaren illunak
maitiagatik pasa nezake
gauba eta egunak
gauba eta egunak
ez emuetan aldenak (bis).

Iriyarena

Sekulan ezta sartu izandu
donostiarrik zeruban
nunbait etzuten meriturikan
irabazitzen munduan,
gaxuarentzat Jaungoikoaren
justiziya dan moduan
kondenaturik arkitzen ziran
ayek danak infernuan.

2

Beinbat San Pedro bultzaturikan
zeruetara sartu zan,
ta beriala presa guziyan
jende tartian gorde zan:
San Pedro berriz billa zebillen
nunbait azaltze ote zan:
alegin franko egiñagatik
iñundik ageri etzan.

3

Orduan Pedro Jaunarengana
larri juantzan beriala,
eta esan zion donostiarra
zeruetan sartu zala
jende tartian eskutatuta
eziñ billatu zubela,
inferrurako destinatuba
anima ura zeguela.

4

Jaunak Pedrori modu onetan
eman zion errespuesta:
—Donostiarra izan ezkerro
billatzen txit gaitza ezta,
Iriyarena danboliñakin
jotzen astia da basta,
pozik saltoka egingo diyo
zeruan dalako festa.

5

Iriyarena danboliñakin
jotzen ziranian asi,
donostiarra danen artian
saltoka zuten ikusi;
San Pedro berriz arren ondoren
egiñ baño len igesi
arrapatuta zeruetatik
infernura zuten jatxi.

6

Berialaxe an sartu zuten
bere lagunen ondoan.
Donostiako kontu guztiyak
gogoratutzen orduan,
demoniyuak ikusirikan
pozturik galdetu zun:
Aber benetan ote ziraden
karnabalak infernuan.

7

Geroztik beti an arkitzen da
infernuban penatzen,
bere zeruko pasadizua
erritarrari kontatzen,
alaxen diyo: —Berriro banitz
ni berriz orla gertatzen
Iriyarena juagatikan
enaiz asiko saltatzen.

8

Deabru ayek beren kontura
donostiarra arturik
zulo batera an bota zuten
kate gogorrez loturik,
toki artako berotasunez
biziro egarriturik,
galdetu zuan: —Ez alda emen
iñun sagardoterik?

Orain asitzen diralako
Dorostiyako erriya
demoniyuak omen daukate
berbiziko larria
bildurturikan lengoko zarra
ez dala naiko aundiya
ta egitea pentsatu dute
beste inferrua berriya.

Baldin geyegi itzegin badit,
jaunak ez arritu,
utz egiñikan baldin badago,
biar nazute barkatu,
donostiarra gaizki nai eta
ez dizut bertsuak sortu,
baizik oyekin karnabaletan
brōma naigendun pasatu.

María

Élizánburu

1

Bertzek erran baitute nik baiño len:

"ainitz aditu dela ainitz ikasten"

uste dut on den,

nik dakidan bezala guziek arren

jakin dezaten,

beraz aipa dezagun Maria nor den.

2

Aztal biribil eta zangar ertsia;

eskuaren berteko zango bia

tiki tikia,

golko bat aberatsa, lerden gerria,

erne begia;

nolako panpina den orra María!

3

Erle bat da Maria etxe barnean,
eta landan orobat ari lanean
bear denean;
apaintzeko polliki bein astean,
noiz? Igandean,
uztai bearrik ez du soinarean pean.

4

Solas alegera bat erranagatik
irri freskorik baizen ez dut izan nik
Maria ganik;
adizkidekin ez du anditasunik;
bainan argatik!
ez erran Mariari solas ariñik!

5

Mariak baratzean badu berea,
udan eta neguan lorez betea
errek'artea;
beren loren artean erdi-gordea,
gatxo maitea,
bera da pollitena ango lorea!

6

Mariak balinbadu moltsa oria
merkatura juateko badu saskia
txuri-txuria,
arroltze lau dozena, oilasko bia,
salduz guztia,
zertako den aberatz orra María!

7

Jendek erranagatik al eta ola,
María batzuetan ez jakin nola
goibel dagola,
bertzetan nigartxo bat ja usten zaiola
zer zaio atxola?
baluke nai balu aise kontsola!

8

Igandetan Maria ziñez panpiña;
zapata txabelekin soin motx urdiña
berak egiña,
elizako bidean, ariñ-ariña.
¡Milla sorgiña!
errege baldin banitz zer erregiña!

Txarmangarria

1

Txarmangarria zare
Eder eta gazte
Ene biotzak ez du
Zu bertzerik maite
Bertze zenbait bezela
Ote zira libre...
Zurekin ezkontzeak
Dударik ez nuke.

2

Txuri gorriak zira
Arrosa bezala ;
Profetak ere dira
Mintzo ola ola.
Araberan bazinu
Gorputza orrela,
Iduriko zinuen...
Zeruko izarra.

3

Oi maitea, zatozkit,
Plazer duzunean,
Iñork ikusi gabe,
Illun-nabarrean;
Lagun bat badukezu
Joaiteko bidean
Arrek jarriko zaitut
Trankil biotzean.

4

Plazer eginen duzu
Ixiltzen bazira,
Aur iñorantak ola
Tronpatzen baitira;
Ez enetzat ona
Olako segida...
Bertzalde zure baitan
Ez naiteke fida!

5

Adios beraz orai,
Ene arraroa,
Ori dela medio
Erritik banoa;
Biotza triste eta
Petxuan gogoa,
Beti jarreikiren zait
Zur'amodioa.

Txoriñuak kaiolan

1

Txoriñuak kaiolan

Tristerik du kantatzen,

Dialarikan zer jan, zer edan

Kanpua du desiratzen,

Zeren, zeren

Libertadia zuiñen eder den!

2

Ik, kanpoko txoria

So'giok kaiolari;

Al balin baedi

Artarik begir'adi

Zeren, zeren

Libertadia zuiñen eder den!

Barda amets egin dit
Maitia ikusirik ;
Ikus eta esin mintza
Esta pena andia
Eta ezin bestia?
Desiratzen nuke iltzia!

Andregeya

Gibert

1

Gauerdi da erriko oronean;
nion ez da argirik lurrean
ez ditake mendian adi deusik,
aizearen arrabotsa baisik.

2

Yautsia da loa begietarat;
txoil alere neskatxa gazte bat,
bere leioan, gau ura bezen **triste**,
atzarria dago orai arte.

3

Zazpi urtez bete dira yadanik,
yoanez geroz maitea erritik,
eta una urte bat Mariari
ez diola berririk egorri.

4

Idortean lorea laster isten:
tristetzián Maria iratzen;
ezpainetan ia il zayo irria;
betea du nigarrez begia.

5

Urso batek galduz geroz laguna,
kantatzeaz estitzen du pena;
andregeyak, egaztin bat iduri
igortzen tu itz auk aireari:

6

"Yoan denean, oraino aurra nintzen,
"anaya bat kasi neretzat zen;
"erretun bat ait'amen aintzinean,
"eman darot, adios erraitean.

7

"Orduz geroz maiz egiten dut nigar
"¡ain eder zen, ain erne, ain azkar!
"etzuen ez, mendietan parerik;
"urrundu da... nik ez dut berririk.

8

"Biotzean duda bat dut sentitzen:

"maitea il beldur naiz ote den;

"nere amak gaitzak niri yoan daut yaz

"oinazeak gabetu nau aitaz.

9

"Gelditu naiz nere amatxorekin;

"sustengatzen gare elkarrekin;

"nik gidatzen ditut arren urratzak,

"ark txukatzen dait nere nigarrak.

10

"Emaiten dut ner, ustea Yaunean;

"indarra dut artzen otoitzean:

"bainan ez da neretzat zorionik:

"maitearen ez baitut berririk."

11

Kolpez, bortan yotzen du ezku batek,

boz batek dio; "Idekazu, idek!"

andregeya, boz au ezagutzean,

txutitzen da, ikara zainetan.

12

Idekitzen du amatxok atea;
Mariaren an zagon maitea!
"O! Yaun ona!" et altxatuz eskuak,
bedeinkatzen ditu bere aurrak.

13

Iduzkiak argitzen du mendian...
Mari orai ez da triste zian;
elizako ez kilek bozki yotzen
andregeya egun da ezkontzen.

Nere maite Maria

Zalduby'k

1

Zoin eder arratsean
Izar arte garbia
Iparretik agertzean
Mariñelen argia!
Bai andizki eder dago
Zeru zola andia!...
Zu miletan ederrago
Nere maite Maria!

2

Izarrak dire zeruko
Aingeruen begiak,
Gizonen begiratzeko
Yankoak ezarriak;
Zu leiora agertzean
Istuz beren argia;
Sartzen dire illunpean
Nere maite Maria!

3

Ezdu ain laket izarrak
Egon leku berea,
Primaberan ez erleak
Baratzako lorea,
Ez du ala argi'albak
Loriatzen ooria,
Nola ni zu ikusteak
Ene maite Maria!

4

Maria zure aldera
Urbildu bezein sarri,
Maite zaitut erratera
Ez naiteke atrebi
Pilpira bat biotzean
Beldur bainaiz abia,
Maite zaitut erratean
Nere maite Maria!

5

Balinbadut Yankoaren
Maitatzeko deretxoak ;
Nola nik ez du izanen
Zure maitatzekoa ?
Zu zare nere bidean
Yankoak ezarria,
Ez samur ni erratean
Maite zaitut Maria !

6

Maria, ni naiz mintzatu
Orai zu mintza zaite,
Zuk ni nauzun erradazu
Nik zu bezela maite ;
Zu nereea, ni zurea,
Igatzeko bizia
Laitেকে nere txedia,
Ene maite Maria !

Alde bat probintziyan

M. Soroa

1

Alde bat probintziyan
degu Goierriya,
Goierrin berriz dago
Erri bat txikiya;
Erri ontan gañera
Bada baserriya;
Baserriyan bizi da
Juan nekazariya.

2

Juan edo Juan Bautista
Indartsu, gaztia,
Sasoi oneko ogei
Urteren jabia;
Lanerako osasunaz
Bai ere betia,
Erriyartan arkaitzik
Etzan aiñ tentia.

3

Etzuben Juan Bautistak
Zintzurrian traba,
Sartuko situben an
Bi lakari baba;
Lanerako gogotik
Izanikan taba
Egunaz lan eginda
Lo betian gaba.

4

Orla jan erateko
Etzan ez ustela,
Bañan arkitzen zuben
Tripa txit motela;
Nolapaitkua bazan
Ark zuben sabela
Sekulan betetzen etzan
Nai zuben bezela.

5

Orrengatikan beti
Batistaren ustez
Biartziran munduban
Gauzak izan gañez ;
Zer nai jan erateko
Beti zegon pozez,
Apetitu galanta
Bañan dirurik ez.

6

Diru pilla biltzeko
Zuben Amerikan
Bere burua jarri
Gogoraturikan
Nolañan etorri zan
Beste bat andikan
Nekazari juan eta
Aberasturikan.

7

Eta gure Batista
Ara jua ezkerro
Gogotik lan egiñaz
Etzan bizi ero,
Dirua gorderikan
Zintzo bai astero
Pozturik izateko
Noizpait “kaballero”.

8

Bañan kupidek gabe
Jardunik lanian
Altsuben diru pilla
Sortu bitartian,
Gaizki jan, gaizki lo ta
Ler egin nayian,
Makaldurik jarri zan
Mintsuben antzian.

9

Kapelu aundiekiñ
Boina sarren ordez
Apañ-apañ jantzita
Biurtu zan pozez,
Eterrik, errira
Beterikan urrez.
Zer nai jateko, bañan
Apetiturik ez.

10

Ogei urte geiago
T'elbarritasuna
Batistak ikusirik
Du bere jarduna:
¿Orain zertako diat
Aberastasuna?
Naiago nitek ¡ai! len
Nuben osasuna.

Lo! lo! lo!

1

Aurtxo txikia negarrez dago
ama emaizu titia,
aita gaiztoa tabernan dago
pikaro jokalaria.

2

Nere maitia, lo ta lo;
egin ezazu gozoro,
sieskatxoa erabilli eta
lo orain eta lo gero.

3

Aurtxo txikia zuretzat
opilla surtan daraukat,
erdi-erdia emango dizut
beste erdia neretzat.

4

Aitxoa jan ta sabela bero
lotxoa egin ta kalera gero,
danbolintxoa kalean dabill
nere maitea dantzatutzeko.

5

Nere maitea lo ta lo
logiro galant bat dago;
zuk oraiñ eta nik gero
egingo dezu gozoro.

Bautista Bazterretxe

1

Bautista Bazterretxe
mutiko pijua,
neri gurdi ardatza
neri gurdi ardatza
ostuta dijua.

Beltxak eta txuriak
izango dituzu
neri gurdi ardatza
neri gurdi ardatza
emate ez baidazu.

Gurdi ardatza ezik

itai ta aria

besteren bear gabe

besteren bear gabe

badaukat neria.

Sega, poto, labaña,

gañera bostortza

perian erosia

perian erosia

daukat nik zorrotza.

Nere idi pariak

dauzka zintzarriak

lepotikan zintzillik

lepotikan zintzillik

zildaian jarriak.

Gañera ustarriak

ta kopetakuak

ontz urre gorri zarrez

ontz urre gorri zarrez

ercsitakuak.

Zeronek naiko gauza
dezula diozu
bañan neri gurdi ardatza
bañan neri gurdi ardatza
lapurtu didazu.
Ordairdu bear dezu
larrutik ederki
ardatza ezpaidazu
ardatza ezpaidazu
neri ekartzen aurki.

Buru gogorra badu
berekin kaltea
ez dedan gauza nola
ez dedan gauza nola
naidezu ematea?
Zentzuan galdurikan
arkitzen zerade
bestela beintzat orla
bestela beintzat orla
ariko eziñake.

Gezur ta abar zabiltza,
Batista tranpiyan,
zu beziñ gezurtirik
zu beziñ gezurtirik
ez da Euskal-errian.
Zure berri dakite
inguruko denak:
gordetzen dituzula
gordetzen dituzula
gauza besterenak.

Zamorako semia

1

Zamorako semia
zortzitik zortzira

neskatxen txanponak biltzen

fanfarroi asi da;

bere bigoliñakin

egindu bost jira,

errepina jartzeko

au bera asi da.

2

Zamorako semia

Añarbea jua da

neskatxen txanponak biltzen

bigoliña jo ta

ni baño geiago inork

ezpaliyo bota

nola emanazake

arlotan agota.

3

Portuluzeko bi aizpa,
Oletako iru
Añarben biltzen dute
nai aña diru,
lengo igandia ortan
ez dira baliatu,
Lesantxiñek soñua
debalde jo digu.

4

Portuluzeko bi aizpa,
Joxepa Gergori,
Goyarriren alaba
prenda eder ori,
etxetik kanpora juanta
bolsera da jarri,
askok ematen badiyo
ezdut urrigarri.

5

Sekulan estrañako
juan ziradenak,
dirua pagatuta
bire ziran denak,
endemas olakuak
emateitu penak,
txanpona biarko du
dantzatuko denak.

Bertsuak jarridiskat

1

Bertsuak jarri diskat
nere buruari,
nere buruari,
naigabea daukat
barrenan ugari.

Mutill gustorikan
ez dalako agiri
ez dalako agiri.

2

Berrogei era sei urte
einzaizkit pasatu,
einzaizkit pasatu,
eta azala berriz
piska bat simurtu.

Neska zartuko ote naizen
egin naiz bildurtu
egin naiz bildurtu.

3

Oraindiokan ez nago
mirabe baldana,
mirabe baldana,
kupirikan gabe
egiten det lana,
ez da gaizki izango
ni artzen naubena
ni artzen naubana.

4

Gazterik ikasi nuan,
plantxan eta josten,
plantxan eta josten,
onela sayatuta
dirua sobratzen,
senartxo bat besterikan
ez det deseatzzen
ez det deseatzzen.

5

Lenago senargayak
ugari baziran,
ugari baziran,
gau ta egun jai ta aste
beti nere jiran,
oraiñ ez dakit ayek
nora juaten diran
nora juaten diran.

6

Gazterikan banituzte
nik zazpi nobiyo,
nik zazpi nobiyo,
batekin ere ez nintzan
ezkontzeko fiyo,
oraiñ damututzia
ez digu baliyo
ez digu baliyo.

Eta zazpirak ziran
ondraduak oso,
ondraduak oso,
nerekiñ ezkontzeko
zeuden animoso
iru begi bakar ta
beste lau jiboso
beste lau jiboso.

Neskatxa ederra nagola
iruritutzentzat,
iruritutzentzat,
zazpi arroba ta erdi
badaduzkat beintzat
ai zer berogarriya
mutill zar batentzat
mutill zar batentzat.

Mutill zarrikan ez bada
betor alarguna,
betor alarguna,
ez da errex egiten
gustoko fortuna,
nola baitere nai nuke
oyerako laguna
oyerako laguna.

Amar milla peseta
badaukat dotia,
badaukat dotia,
beste bost milla berriz
etxeko partia,
ni artutzen naubenak
ai zer suertia
ai zer suertia.

Artzerikan ez nuke nai
gaisto eta nagirik,
gaisto eta nagirik,
eta ain gutxi berriz
moskor ta ordirik,
txarra izatekotan obe det
bizitzia bakarrik
bizitzia bakarrik.

Iñork jakiñ nai badu
nungua naizen ni,
nungua naizen ni,
egia esatia
beti da komeni,
Donostiñ jayo ta asia
Joxepa Antoni
Joxepa Antoni.

Euskal Erriko neskatxatxoak

12

Euskal Erriko neskatxatxoak
esnatu zaitezte jarren!

zereagatikan gaiz pegakorra

dabilkizuten ondoren,

egin, egin "gurutze"

orobat "Aitaren"

plaga orren ekaitza

galdu dedin errien,

zergatikan kaltea

aundiya dakarren

sartu ezkeros tandik

etxien barrenen.

2

Errañubaren gisan dabilta
beti zuen ondorian,
gauza on franko badaukatela
mingaiñ gozoen gañian.

—Mi padre gobernador,
mi tio alkate,
mis hermanas maestras,
conmigo cástate.

¡Ay mirabe gaztiak!
erantzun nazute,
zertarako oyekin
ezkontzen zerate?

3

Lo menos tengo cien millones
ori diru jakiñiau
y los billetes del Banco... cojo
gañezka berriz kofrian,
tengo pueblos enteros
Málaga aldian,
tengo dos mil molinos
gau ta egun lanian.

Tengo un gran piano
bizkarren gañian,
porque allí dormía
lastozko oyian.

4

Tenemos viñas, tenemos trigo,
tenemos tanto aceite...,
tenemos naba ezkondutzian
beti gertatzen zerate;
onak badiradela
esaten dezute?
bi milletatikan bat
atera zazute,
infernutik zerura
sartzen dituzute
egin ezkeroztandik
orijen emazte.

5

Ezkondu eta... ondorenean
dira komedi politak,
gaxo daudela lanerako ta
azaltzen dirade tranpak,
gizona etxian ta
andria fabrikan,
gurasoak errietan
beste aldetikan:
—Biraldu zan senarra
azkar etxetikan
aurren bat izan baño
lenago tandikan.

6

E.—Mi muy querido, ¡ay mi marido!
¡qué malas noticias hay!
porque vosotros alperkerian
dezubelako bizi nai,
desde mañana así
bearko lanian
kiskurtzen egon bage
subaren aurrian,
etzo sukaldeturik
eltzien gañian
cantando seguidillas
tripa betetzian.

7

S.—A mí me llaman Prisco Veneno
al mismo tiempo soy liberal,
soy mano negra y socialista,
soy monárquico y federal,
el día que me llegue
capitán general,
con estos sagarduos
no voy a tolerar
porque siempre me dicen
que vaya a trabajar,
¿qué mayor honra en mí
que ser gran holgazán?

E.—Con tus mentiras, con tus garbanzo
cansos nos tienes aspaldi
si eres liberal y eres federal
todas las farsas para ti,
aquí es necesario
trabajar, trabajar,
con fábulas la tripa
no se puede llenar,
el padre a palizas
hoy te va a matar,
hasta que te entierren
no va a descansar.

S.—Nadie a mí a palos me mata
porque soy "valientía",
tengo en Sevilla una ganbara
gizonen larruz betia,
hice robos y muertes
Utrera aldian,
estuve en presidio
ogei bat urtian,
prefiero por la honra
morirme katian,
tocando mi piano
ta ez asi lanian.

E.—¡Aita etorri bedi aguro
makil aundi bat artuta
zerengatikan alper txar onek
narabilkiyen joka.

S.—Cállate sagardua,
cállate la boca,
no grites guretarrak
bide gabe jota.

E.—¡Aita azkar etorri
iya ito nau ta!

S.—Habla en cristiano,
¿por qué fuiste tonta?

E.—¡Ai Jaungoikua! Auxen da auxen
auxen da bizi modua!

¡Oi! ¡oi!, aitatatxo ez aldu entzun
biotz nereko ojuba?

A.—Bai, bai, aditu diñat
or naun or aguro.

Ah!, ah!, zer nolakuak
dizkaten emango,
ez diñ ez etxe onta
bearrik egingo
bat, bi, iru, lau esan ta

S.—Vaya qué padre tan embustero,
vaya qué padre tan bribón.

E.—¡Aita! labana artu du eta
obe du pakian egon.

S.—Venga usted cuanto antes,
venga usted, mal suegro,
soy capaz de llamarle
lerdo, más que lerdo,
en figura de estatua
aquí le espero,
me voy a hacer un héroe
si no tengo miedo.

A.—Zer esaten dek mutur zikiña;
zer esaten dek ordea?

Ara nun dedan i zapaltzeko
labanan baña ohea;

kis kas, kis kas, kis kas,
iretzako seyak,

da, da, da, da, da, da,
oraiñ amabiyak,

dan, jo det ordu bata,
bun, bun, ordubiyak,

orlako erlojurik
etzaukat erriyak.

S.—Tras del playar vienen las penas,
¡oh suegro, perdón, perdón!

A.—No, no, tómalos a buena cuenta
y aprende quién es el bribón.

S.—Queridísimo padre,
qué día tan fatal,
los huesos el entierro
me empiezan a cantar,
usted sí que es un héroe
y también inmortal,
cuántas me tiene dadas
saque usted el total.

A.—Aixa nai uke denbora ontan
aitak alperrik galtzia,
artzen ditunak egokigo dek
totala ateratzia,
zirt zart, zirt zart, zirt zart,
o tikan kalera,
din dan, din dan, din dan,
segizak aurrera.

S.—Usted quiere mandarme
Ebros auntz aldera?

A.—Bai, bai, piano ori
afinatutzera.

Pasa diagu Bitoriya ta
denboraz gaitu Mirandan
ire lagunak entzun ditzaten
jotzera naiak din din dan,
joan ari emendikan
a tu tierrara,
¡or, ez ago etorririk
geyago onera,
¡or, or! izan dedilla
zuen akabera,
erdaldunak erdaldun,
euskaldunak euskera.

Andre Madalen

Andre Madalen

andre Madalen

laurden erdi bat oliyo

aitak sariya ekarritzian

amak ordainduko diyo.

Izazu nitzaz kupira

Bilintx

1

Loriak udan intza bezela
maite det dama gazte bat,
ari ainbeste nai diyotanik
ez da munduan beste bat:
Iñoiz edo bein pasatzen badet
ikusi gabe aste bat,
biyotz guztira banatutzen zait
alako gauza triste bat.

2

Neskatxa gazte paregabia,
apirilleko arrosa,
izarra beziñ dizdizariya,
txoriya beziñ airosa:
Oraintxen baño gusto geiago
nik eziñ nezake goza,
zori onian ikuste zaitut,
; Nere biotzak au poza!

3

Ez aldirazu antzik ematen
nik zaituala nayago.

¡Ai! mariñelak gau illunian
izarra baño geiago:

Nere onduan zauzkatalako
pozez zoraturik nago,
zu ikustiak alegratu nau
triste neguen lenago.

4

Nik ainbat iñork nai dizunikan
arren ez zazula uste,
nere begiyak beren aurrian
beti desio zaituzte:

Eguzkirikan ikusi gabe
txoriya egoten da triste,
ni ez nau ezek alegratzen
zu ikustiaz ainbeste.

5

Arpegi fiña, gorputza berriz
ez dago zer esanikan,
izketan ere grazi ederra,
ezer ez dezu txarrikan;
mundu guztiya miratutzera
zu bezelako damikian;
agiyan izan liteke, baño
ez det sinisten danikan.

6

Nere betiko pentsamentuba,
nere konsolagarriya,
zu gabetanik ezin bizi naiz,
esaten dizut egiya:
Zu baziñake arbola, eta
ni baldiñ banitz txoriya,
nik zu ziñaken arbol artantxen
egingo nuke kabiya.

7

Amoriyuak nere biyotza
zure ganuntza darama,
erri guziyan zeren daukazun
neskatx bikañaren fama:
Beste fortunik mundu onetan
ez det desiatzen, dama,
aur batek berak izan gaitzala
ni aita eta zu ama.

8

Falta dubenak logratutzeko
itz egitia txit ondu,
eta nik ere sayatu biat
ote gintezken konpondu:
Gaur nagon beziñ atrebituba
sekulan ez naiz egondu,
argatik golpez galdetzen dizut:
Nerekin naizun ezkondu?

9

Ezkondutziak izan beardu
preziso gauza txar'en bat
ala esaten ari zait beti
nere konsejatzalle bat:
Alaxen ere aren esanak
oso utzirik alde bat,
ongi pozikan artuko nuke
zu bezelako andre bat.

10

Zedorrek ere ongi dakizu
aspaldi ontan nagola,
zuregatikan penak sufritzen
bañan ordia au nola:
alaxen ere ni gana eziñ
bigundu zaitut iñola;
ni zuretzako argiya naiz
zu neretzako marmola.

11

Nere biotza urtzen dijua
eta ez da misteriyo,
penaren kargak estutu eta
zumua kendutzen diyo:
Begiyak dauzkat gau eta egun
egiñikan bi erriyo,
beti negarra dariyotela
zu zerala meriyo.

12

Zu zeralako meriyo baldiñ
juaten banaiz lur azpira,
gero damuba eta malkuak
alperrik izango dira:
Beiñ juan eskero oyen birtutez
berriz ez niteke jira,
ori gertatu baño lenago
; Izazu nitzaz kupira!

Kontxesirentzat

Bilintx

1

Kantatutzera indar aundiko
desio batek narama,
Kontxesi zuri nai dizut eman
merezia dezun fama:
gure probintzi Gipuzkoakuan
igualik gabeko dama,
berinkatuba izan dedilla
zu eman zinduben ama.

2

Zedorrek uste etzenubela
egon nitzaizun begira,
lendabiziko oñetara, ta
urrena berriz gerrira;
oñak dituzu txiki politak,
gustagarriyak txit dira,
gerriyak berriz eman litzazke
kana bat zintak bi jira.

5

Andik urrena ipiñi nizun
erreparua petxora,
ordubantxen bai eman nizula
aingeru baten itxura:
Jaungoikoak berak deitu izan bali
iyo nerilla zerura,
zure ondolik ara juan biarrak
emango ziran tristura.

6

Ondoren jarri nitzan denboran
begiratubaz lepura,
biyotzak salto egiten ziran
irten nayian kanpora:
Irten ta zuzen badakit zierto
juango zan zure kolkora;
nik jakitera nai zenubela
utziko nion gustora.

7

Atenziyua begiyetara
paratu nizun segiran,
ez dakit zierto begiyak edo
eguzki berri bi ziran;
ondo ikusi ez nizkitzun ta
¿nola esango det zer diran?
Begiratutzen nizun guziyan
bista kendutzen zeniran.

8

Ille beltz eder dizdizariya
oparo dezu buruban,
konparatzeko baliyo duben
sedarik ez da munduban,
trentzak egiñik zenezkan dana
erregiñ baten moduban;
diamantezko koro eder bat
falta zitzaizun orduban.

Ointxo politak, gerriya mia,
graziya milla petxuban,
lepo biribill diruriyena
egin berriya tornuban
pare gabeko begi argiyak,
ille ederra buruban:
zu baño aingeru politagorik
ez da izango zeruban.

Beti ariko naiz Jaunari eskaka
ondo izan zaitezela,
etzazula uste nere biziyan
zutzaz aztuko naizela.
Eskumuñak maiz bigal nazkitzu
orain artian bezela;
ainbeste egin biar dirazu
penaz ilko naiz bestela.

Zenbait damen esker txarra

1

Atzo probetxu gabe,
etxeko auzuan
egondu nitzan zure
zai egun osuan.
Gaur suertez ikusitzen
zaitutan kasuan,
itz egin bear dizut
izketa gozuan.

2

Zeiñ ta politak diran
arrosa, jazmiña,
azuzena, liriyo,
eta klabeliña,
danak bat egintare
ez dirade diña
igualatzeko
maite atsegiña.

3

Nai det jakin dezazun
orain beriala,
txit asko nai dizutan
neskatxa zerala,
gaur zu ikusitziak
poztutzen nau ala,
nun iruritzen zaitan
jai aundi bat dala.

4

Au da mundu guziyak
ongi dakiyena:
zu zerala dama bat
grazi utsa dena.
Bat oyetan badezu
erotzen naubena:
artan arkitzen dizut
grazirik geyena.

5

Izan ere gorputza
dezu aproposa;
ikusi utsarekin
ematen du poza,
beste inor ez dala
zu beziñ airosa,
erri guziyan dago
banatuba boza.

6

Patxaran ibiltzia
dago gaur bolaran
pausaje fiña orain
zergatik moda dan.
Eta zu ikustia
modako patxaran,
; ez dakizu neretzat
nolako ditxa dan!

7

Nik esan ta zuk jakin
biazu ezikan.

Lau andre gai dakazkit
artu nai ezikan.

Ezkonduko nitzake
gaur bertan kasikan.

Besterekin ez, bañan
¿zurekin? ; Pozikan!

8

Amoriorik gabe
pasatu eziñez,
nik damak maite ditut,
aitortzen det ziñez.

Begiyakin guziyak,
milla bai mingañez,

¿baña biyotzarekin?
; zu besterikan ez!

.....

Nere andre onekin

1

S.--Nere andre onekin
txit asarre nabil,
izan are alako
Maritxua dabil,
senarra gana ez da
errenditzen umil,
obeditzea baño
nayako luke il.

2

A,—Obedituko nuke
merezi bazendu,
errespetua iñoiz
nork berak galtzendu
oker zabilta eta
nik ezin zuzendu,
gure kasketa beti
orrek ekartzendu.

S.—Nere andre Kasintak
artu dira gala,
bertxo berriyak jarri
bear dizkadala,
kulpa gabe asitzen
bazeradeala,
gauza jakiña dago
gaxtua zerala.

A.—Publikuan diozu
gaxtua naizela,
nik esango dizut zuk
merezi bezela,
ia danak aditzen
jarri ditezela,
igarriko dizue
gaizki zabiltzala.

5

S.---Sekulan egin izan
 ez dizut gaitzikan,
 aldezakedanean
 mesede baizikan,
 aditzen badizut nik
 orlako itzikan,
 bizbarrean ez dezu
 izango otzikan.

6

A,---Beti beti beldurrez
 emen nadukazu,
 edanekuan bintzat
 zitala zera zu,
 orditu gabe berriz
 onik ez daukazu,
 nerekin bizitzeko
 mudatu biezu.

7

S.—Itxubari pegatzen
diozu poliki,
zuk ondo jan eta ni
gosiak iduki,
senar emaztientzat
au ez da egoki,
makilla dantzatutzen
asiko naiz aurki.

8

A.—Makillarekin baldin
ni jotzen banazu,
egun asko baño len
damutuko zatzu,
itxuaurreko beti
ibillitzen nazu,
zuluen batian or
gelditu biez.

S.---Ni zuluan sartzeko
zaude pregonatzen,
ta len berriz gosiak
naukazu penatzen,
zeorrek dakizu zuk
ondo gobernatzan,
eta ni misiriyan
gosek akabatzen.

A.--Jan edanaz baliyo
ez du zuretzako,
oyen paltan etzaude
simur eta plako,
bai inbirioso ta
txarra zeralako
ezin eramana zuk
andriarentzako.

S.—Zeñek sufrituko du
gauza ori ala,
nabilki arto utza
jango nukiala,
anka ankari eman
ezin diodala,
zuberriz gobernatzen
beti egiñala.

A.—Gosiak etzaudezu
gezurra da ori,
ez egonagai kan
eder eta guri'
suangilla jandako
katua diruri,
beretzako au ezin
gustatu iñori.

13

S.---Lotzagabeagorik
andria zu baño,
iñoiz ere ikusi
ez det oraindaño,
ezta desondratutzen
iñor ortaraño
enparatutzen nazu
atzeko alderaño.

14

A.---Gabetan ordituta
arro ibillitu,
goizian gogorik ezta
jan gabe gelditu
ez ieanak ez baño
orrek galtzen zaitu
ta zuk orlakorik nai
ez dezu aditu.

S.—Oriyek esatia
ez dira komeni,
zedorrek ez dezu ta
lotza eman neri,
jendeak badaduka
or zenbat armoni,
txit bajeza aundiyan
nazu ni ipiñi.

A.—Gizona nai dnanaz.
obea artu beza,
ez zu bezin zitala
eta prestu eza,
zertako etzeran
geldo ezereza,
da eman naya neri
daukazu bajeza

S. Iltz txar asko esalen
dituzu nigatik,
iya atera nazu
pazientziyatik,
jendia farrez dago
aldamenetatik,
ezin adiko zera
orrelaxen beti,

A.—Aundiyaguak ere
oraindik baditu,
nere gizon txar onek
esango banitu,
zelebreagorik ez
dezute aditu,
esaten daukat lotza
ezin atrebitu.

S.--Nik ikusitzen ez da
zuk naidezuna egin,
beti neri pegatzen
ta gaizki itz egin,
nik asmatzen dizkizu
txit gutxi utz egin,
zurekin bizitutzen
ez dago atsegin.

A.---Ez zaude birikari
guztiz gustosua,
ordia ta eskasa
pantasioa
deskonfiatua ta
errezelosua,
beti beldurrez dabil
zure andre gaxua.

S.---(Gesurraak sumatzen
 daukazu neke,
 lotzagatik bestela
 esango zenduke,
 aspertu ere gabe
 ariko ziñake.
 nere tatxak esaten
 baldin baneuzkake

A.—!Ai Jose Iñasio
 etzabiltza justu
 itz geyegi dituzu
 nere kontra nastu
 andria orrelako
 tatxarikan ez du
 gezurra esateitu
 ez zui senistu.

23

S.—Gezurtiya naizela
orra neri esan
aundienetakua
naiz zedorri lzan
aurria artzen dezu
falsuaren gisan
nik ezagutzen zaitut
zergatik zabiltzan

24

A.—Asiera bezela
guk errematia
Alperrikan da zuri
ondo esatia
orren buru gogorra
gizona izatia
ez dezu baliyo ta
isildu zaitia

L o r i a k

Bilintx

1

Beti nik damari
¡Loriak ugari!
Batek ere zerbait
Maite naubenari.
Damak berriz neri,
¡Gezurra diruri!
Osiñez pagatu
Lorezko zor ori.

2

Oso nago mendian
Jaungoiko itxubaren
Ama Benus-en-gandik
Jayotakoaren;
Neroni ez naiz jabe
Nere biyotzaren;
Gaixua preso dakat
Amoriyuaren.

3

Sartutzen dan bezela
Balkoi batetikan
Eguzkiya gelara
Kristaletatikan,
Neri gisa berera
Bein sartu zitzaitan
Dama bat biyotzera
Begiyetatikan.

4

Biyotz nerian preso
Gelditu zan bertan
Geratzen dan bezela
Txingorra iyeskan:
Bizi naizen artian
Irukiko det an
Eta jo zer gustora
Irukiko detan!

5

Ditu ille urrezko
Albiñu luziak
Alakorik apaintzen
Ez du orraziak
Frankotan inbiriya
Eman dit aiziak
Arren trentza tarterik
Jostatzen pasiak.

6

Ondo konparatzia
Da gauza eziña
Arren begiyetako
Urdintasun fiña;
Ez da urrutirare
Aitatzeko diña,
Itsasoko bagaren
Kolore urdiña.

7

Ez da zer aitaturik
Zeru zabalare,
Bolaraz urdiñ-urdiñ
Jarritzen dalare
Aingeru neriaren
Begiya alare,
Urdiñ puribagoko
Zerubak dirare.

8

Izarraz dirudite
Ain ditu argiyak,
Aingerubak zerutik
Jatxita jarriyak,
Cloriyan egintako
Ispillu garbiyak,
Jaungoikoa badala
Gogoragarriyak.

9

Kupido'k eritzen nau
Fletxakin berriro,
Neregana jiratzen
Dituben aldiro;
Biyotzera sartzen zait
Eztiro-eztiro
Alakoxe gauza bat
Gozua guztiro.

10

Aren ezpañ gorriyak,
Faman daude fiñtzat,
Iñoiz pasatzen dira
Lore polit bitzat,
Zerbaitez apartetik
Ikusita beintzat,
Mundu guztiyak artzen
Ditu krabeliñtzat.

11

Farrik egiten badu
Zerutar birjiñak,
Erakusten dituben
Ortza txiki fiñak
Txuriz elurrarekin
Dirade berdiñak
Perlak iruri dute
Zillarrez egiñak.

12

Gozuaren birtutek
Aren asnasiak
Lo arazitzen ditu
Nere oñaziak;
Usai oberik ez du
Banatzen aiziak,
Loriak maitatubaz
Baratzan pasiak.

13

Arpegiya polita,
Gorputza liraña,
Txikiz ez det esaten
Oñaren tamaña;
Ibiltzen airetsua,
Jantziya apaña,
Aren graziyak dira
Eziñ esan aña.

Anton Iskiñentzat

Bilintx

1

Bertso berri batzuek
Anton Iskiñentzat (bis)
txit komeni dirala
iruritutzenzat,
berak badaki jartzen
beste iñorentzat,
ez da milagro bestek
jartzia beretzat. (bis)

2

Bere ofiziyua
zapat'egillea,
lan fiñan badauka
abillidadea,
bañan lanerako da
gogorik gabea,
pena artzekua da onen
enfermedadea.

3

Lana egiñ baño len
kobratu lenbizi,
diru oyek artuta
tabernara igesi,
danak gastatu arte
zeñek etxerazi
bizkarra autzitzia
ez aldu merezi?

4

Orren bizi modua
Donostiko erriyan,
beti zurrut egiten
sagardoteriyan,
broma eta kantuak
zelebrekeriyan
andik atera gabe
al duben guziyan.

5

Gosaitako bear ditu
sei edo zazpi baso,
zeñek orduban oni
lana egin asiko:
edan korriente baña
pagatzia aztu,
ola tabernariya
nola aberastu?

6

— Bete ogeigarrena,
tabernariyari.
— Ez dizut nik emango
sagardorik zuri;
ez banazu pagatzen
zor nazuna neri
parte emango diyot
zeladoriari.

7

—Ez parterik eman
zeladoriari,
astian pagatuko dizut
pitxar bat edo bi,
ezpazera konforme
ajolik ez neri,
gogua badet eta
bastante da ori.

8

—Ez banazu pagatzen
zor nauzuna
boina kenduko dizut
buruban dezuna,
zuregatik galdu det
iya osasuna,
!ai ajolik gabeko
lotzi ez dezuna!

9

Zazpi karga sagardo
zor nazkitzut iya.

—Barkatu biar dezu
er da ori egiya,
zedorrek bezi ona
daukat memoriya,
geyenaz iru karga
dizut zor utziya.

10

Berriz olako gauzik
esaten banazu
ardirik neregandik
artuko ez dezu,
neronek aña kulpa
zedorrek badezu,
ni zein naizen jakin da
zertan eman nazu?

Ederki portatu zan
bere esanian
fiyalitezke orrekin
gaurko egunian,
tripa ederki bete
egin zubenian
zerutik etorri zan
bigaramonian.

13

Zuk ematen banazu
jaten ondo neri,
nik korriente jendia
etxera ekarri,
festak ziraden eta
jende asko zan an
guziakin broman
au beriala asi zan.

14

Bapo egon izan
jaten da eraten,
txit petardo ederrak
dakizki ematen,
apostuba nik ori
San Pedrotan aurten
ezaizala bakarrik
Mutrikuara joten.

11

Ez da apuratuko
sokiña ezertan,
besteren bizkarretik
dabill zurrutan,
tabernariyarekin
beti erritan,
egun batian or
illko dute bertan.

12

Txaskarrillo polit bat
lau urte igaro,
Motrikun Iskiñakin
pasatua dago;
juan da esan zion
ostalariyari,
Donostiyatik dator
jendia ugari.

Mediku baten ateraldia

S. Baroja

— Konke esan beza, mediku jauna
¿asmatu nuen, ez da ala,
nere alaben tristetasuna,
amoren kontuba zala?
jain da gaxoa iñuxentia!
usakume bat bezela,
malizi gabe, seguru nago,
mutill koxkorren bat dala.

—Doña Leokadia: konforme nago:
andre jakintsurik ez da
Españiatik Alemanira
berorri lenbizi ez bada
baño ote dan mutill koxkorra
edo alaba ote da,
egin artian berrerek ezin
jakin lezaken gauza da.

Asto kontua

S. Baroja

Ikusirik pasatzen
astoak ugari
aita batek algaraz
dio semeari:
— Begirakiok, Pello
ire anaiari.
Semeak bereala
erantzun du — Ene
ez nuben nik uste
berorrek zituala
orrenbeste seme.

Madalenen arrazoia

S. Baroja

Madalen ezkondu zan
bersolari batekin;
zortzigarren illean
poz aundiyarekin
eder eta galanta
seme bat du egin.

—

Ama suyaren kontra
pozoitua dago
ta alabak esaten du:
¿Nola geroago;
zortzikoak egiten
aitua badago?

Nork esan?

S. Baroja

Milla bat aldiz Joxe Paskuala
arkitu zikan zakarra,
broma zalia, au t'ura zala;
ainbeste burla ta farra
ita orain Joxe dik senarra!

Kanta

Zure arpegiyan dituzu arrosak
ta ausartze ez nai ukitzera
bada arrosaren usai gozua
ukitzen bada galtzen da

Itxasua laño dago

1

Itxasua laño dago
Bayonako barraraño
nik zu zaitut maitiago
txoriya beren umiak baño

2

Gure oroz aita dago
laño pian gaberaño,
nik zu zaitut maitiago
arraitxuak ura baño.

Nagusiya ta maistarra

Txirrita

1

Orañ artian ni izandu naiz
aitona zure nagusi,
errenta txintxo pagatu dezu
bere kapoi eta guzi,
zu bañon gizon umillaguak
ez ditut asko ikusi,
orañ etxe saltzera guaz
nai bazenduke erosi.

2

Larogei duro zuben errenta,
etxiak orañ artian,
zedorrek ala pagatu dezu
berrogei ta amar urtian,
lenguan bertan gelditutzia
ez da neretzat kaltian,
bost milla duro baliyo ditu
ta konpondu gaitian.

3

—Zer familia izandu degun,
jauna, nai alditu aditu?

Amabi aurren aita naiz ni ta
semiak amar baditu,
lan egiteko inor gutxi ta
mayian eziñ kabitu,
baneukake non enpleatua
bost milla duro banitu.

4

Au aditu ta beste aldera
buelatu zan nagusiya,
esanaz:—Nik zer kulpa dadukat
zuk ume asko aziya,
ez dezu asko istimatzen nik
egin dizuten graziya,
zuek artu nai ezbadezute
bada zeñek erosiya.

5

—Eskerrik asko, nagusi jauna,
pakian biagu bizi,
baña izketan bukatu arte
ez bedi juañ igesi,
klaro dabillen gizonak ez du
arrazoi txarrik merezi,
naidubenari saldu bezayo,
guk ez genezake erosi.

6

Aziendaz ta lan erramintaz
bagendukan indarra,
ayekin ere ez degu orain
oso alderdi ederra,
zazpi baliyo luteken gauzak
bostian eman biarra,
au pensatzian etortzen zaigu
begietara negarra.

7.

Amabi lagun mayian bueltan
juntatzen gera jateko,
geyenaz ere aretatik bost
irabazira juateko;
pazienziya artuko banu
an bat ez nuke kalteko,
Jaungoikuari eska zayogun
osasuna emateko.

8

Prezisamente martxatu biau
baserrira edo kalera,
norbaiti egin biarko zayo
bizi lekuen galdera
esplikatuaz nola izan dan
fameliyaren galera,
gure Jainkuak nai duen arte
nonbait mantenduko algera.

Aizak a motell mañontzi

Xenpelar

Aizak a motell mañontzi,
urrengorako gorantzi,
ez aldakiken or pip'artzia
etzala lizentzi?

Jeniyo txar oyek utzi,
bestela ezurrak autzi,
giza legia nola biardan
ezin erakutzi.

Muzarro

Nik badet gizalegia
Franziskok baño obia,
beste tatxit etzait arkitzen
arrote pobria.

Jeniyua det noblia,
kortesi pare gabia,
ik neri ezurra^k austeko
nun dek abillidadia?

Kenpelar

Ziri bat sartu dit neri,
ara bestia berari,
abillidade gutxi dagoenik
ez esan inori;
azala daukak ik lori,
mamirik ez dek agiri,
ezurigarra austen zallaituk
bazekiyat ori.

Muzarro

Kinplitzik ire ordenak,
ezdik kalteko nordenak,
bestela parra egingo ditek
begira daudenak,
ik nun daukazkit kemenak
menderatzeko gallenak?
ezurigarra autsitzen dizkik
indarra dubenak.

Nere senarrarekin

Xenpelear

1

Nere senarrarekin
daukadan bizitza,
kantatuko det inork
ikasi albalitza;
piña izango zala
emantziran itza,
akerraren adarrak
bezela gabiltza.

2

Nere senarrak daukaz
ki ijeniyuak
eztu gustorik gure
matrimoniyuak;
mani gaistuak dauzka
burura iyuak,
eman biarko zaizka
Ebanjeliyuak.

3

Baldin bazenekite
lengo egun batez
nola ikusi dedan
gizona suertez,
neskatxak kortejatzen
dabill borondatez,
andriari jipoya
diruaren partez.

4

Ni engañatu arte
txintxo eta umill
mingañ ederrarekin
berrogei maratill;
orain lana egiñ baño
nayago luke ill,
bere ta besterenak
zurrupatzen dabill.

5

Goizian tabernara
juan da alperrian,
begi bat txintxilikan
erdi negarran,
ziraldoka etxera
illunabarrian,
gaistotzen asi da
ondu biarran.

6

Tabernatik etxera
orren pausajia,
irrintzi egiteko
badu korajia;
errespetua biar
zuen parajia
amen sabelian
aztuta lajia.

7

Moskorteagatikan
zalla da erortzen
bakarrikan badaki
etxera etortzen;
andria egon biar
bizkarra berotzen.
senarraren eskutik
azotiak artzen.

8

Umiak karraxiyan,
neroni antzika,
senarra moskortzian
etxian musika;
erantzuten badiyot
kontrako itzika
nere bizkarrak eztu
izaten otzika.

9

Beste lau lagunekiñ
bart aguazilla
jokuan galdutako
txerriyaren billa;
ate bazterretatikan
oyen eskamilla
andria etxian bada
atera dedilla.

10

Arrituriñ begirik
ez niyoten jaso,
odalak urbiyutu
zitzaizkidan oso;
nere txerri gaxua
ostatura preso
senarren jokua
izan dala kaso,

11

Ixillik pasa nuben
nere barrenian,
au ere egin biar
zuben azkenian;
beste jaberik badu
bire zuzenian,
jaunak eramazute
nai dezutenian.

12

Esku Aldaba zuen
txerriyak izena,
bost arrua ta erdi,
bastante gizona;
ura jokuan galdu
gañera kinzena,
orra nere senarra
sujeto zuzena.

IJITUAK

Txirrita

1

Esplikatzera nua kontuak
ijito jende oyenak
nola diraden gure artian
gertatu izan diranak
alperrak edo moskorrak dira,
erdi lapurrak geyenak,
okasiyua ta eskandalua
faltatutzen etzayenak.

2

Beren asto ta zakur eta ume
emen dabilta jai ta aste,
Mikeletiak inoiz aurrian
atera izandu dituzte,
berak baño len ostera etorri
ta persegitzen gaituzte;
beste olako naziyorik bat
inondanik eztet uste.

3

Beren asto ta zakur eta ume
dabiltza juan etorriyan,
emakumiak lasto petresto
kasikan larru gorriyan;
gizonak berriz mosketa aitzaki
beren aizturak gerriyan
siñalienbat utziko dute
sartzen badira erriyan.

4

Emakumiak aurrak artuta
eskera dijoazenian
etxeko andre limosnatxo bat
Jainkuaren izenian,
ofrezimentu luzia baño
errezo motza azkenian;
gauza guziyak gero berentzat
iñor bistan eztanian.

5

Kojitutako aberiakin
nola naiduten jokatu
emen ostuta auntz eraman,
an saldu edo trukatu,
anguak berriz onuntz ekarri,
jabiak ezin topatu,
kontu garbiya nai duenak ez
ijituakin tratatu.

6

Ijituetan gutxi izaten
dirade berriz antzuak,
naturalezaz kasta gogorrak
ta gañera umetsuak,
bizkarrian bat, tripan bestia
aldamenetan batzuak,
sall galantakin ikusten dira
dabiltzala geyentsuak.

7

Usandutako okelak jaten
dira pare gabekuak,
anima salbo, zakur gosiak
diraden bezelakuak,
naiz izan usteldu ta lurpian
luzaro egondakuak,
istimatutzat daramazkite
oriyek orrelakuak.

8

Sasiyetako oyalak eta
ollokojitzen atsuak
ta kalietan poltsak miatzen
dabiltza mutill gaistuak
gizonak berriz mendiyetatik
biorrak eta astuak
gauza gozorik senti badute
azkar erantxi eskuak.

9

Asolbiziyo biarrik ere
ezta izaten oyekiñ
facultadia «Aita Santuak»
ainbat badute berekin,
naiz aide izan ezkontzen dira
alkar naidutenarekin,
orretarako gazterik pronto
naiz dotriñarik ez jakiñ.

10

Kontratuako ere eztute
eskribanorik biarrik,
kastuban zertan ibilli biardu
txorakeriyan alperrik,
naiz aide igual ezkontzen dira
igual oriyek bakarrik,
bodetarako ardua bada
ez da besteren biarrik.

11

Neska mutillak tokatzen bada
berentzat elkar artzia,
zelebre diran kontuak ortan
ere badarabiltzia
buruaz gora botako dute
autzi dedilla eltzia,
zenbat puzka egiñ ainbeste ur-
egituen ezkontzia. (teko

12

Etxe karrera ola telleri
legorrak dauden tokira
jeneralian gauetarako
erretiatutzen dira;
atenziyuan egon izan naiz
nola dabiltzan begira,
eztute onik asarretuta
purrukatzen ez badira.

Baratzako pikuak

Baratzako pikuak
iru txortan ditu;
neska mutil zaliak
ankak arin ditu,
ankak ariñak eta
burua ariñago,
dantzan obeto dakin
arta jorran baño.

Arta jorrara nua
luberrri berrira,
belarra jorratuta
artuak sasira.

Aitak arta jorrara
deitzen naubenian:
— Ama oyera nijua
min det sabelian.

Zortzikoa

Festarik bear bada
bego Donostira,
betikoa da fama
ondo merezia;
bestetan ez bezela
emen gazteria
amaren sabeletik
dator ikasia.

Aita San Antoniyo

Aita San Antoniyo
Urkiolakoa,
askoren biotzeko
santu debotoa,
frankok egiten dio
San Antoniori
egun batean joan da
bestean etorri.

Txomiñ eta Bartolo

Nik ikusi nituan
San Juan gabian
Txomiñ eta Bartolo
tabernako atian.

Ormia zalakuan
batak besteari
txisa ete zion zart zart
pragetan alkarrik.

Beste batek du deguan
sukalde onduan
illitia ipiñirik
zurretxo zuluán.

Pipiari tiraka
masallak sarturik
sudurra erreko zuan
sukalen balerik.

LUA, LUA

Lua, lua, tuntulun-berde,
lua, lua. masusta...

Aita guria Bitoriyan da
ama manduan artuta.

THINGIN THANGUN

Thingin thangun
inpernuko mallubaren otsa
Bordaxarko neskaren
ezkontzeko poza,
iñork esate ez ta berak
esateko lotsa,
esposatuko litzake
pozik neska motza.

Gure baratza n

Gure baratza n daudez
lore guztiz fiñak,
txuri gorri oriak,
moria eta urdiñak,
liriyo, azuzenak,
alegriyo miñak,
bioletak, arrosak
eta krabeliñak.

2

Guk daukagu musikak,
guk melokotoyak,
gingak diruditenak
perlazko botoyak,
udare, aran eder,
pikuak, sagarrak,
naranjak, limoyak,
nispira, briñoyak.

3

Goizian jaiki eta
leyotik begira
gure arto goxuak
eldu ote diran,
ostua ximur eta
burua berdia,
ale ederra egiteko
¡ a ze siñalia !

Galai bat etorri zait

1

Galai bat etorri zait
larri eta estu,
oyaren baztarrian
egiteko leku,
xiri ta muxu,
traje baten neurriya
biar ziran artu.

2

Onian ezin eta
gero gogorrian,
onian ezin eta
gero gogorrian,
oyaren aurrian
oriñalez jo nuen
kopetako ezurrian.

3

Errukitu zizayon
egin nion kura
etxian zan botika
gatza eta ura,
Joxe Bentura,
ez geyago etorri
nere konbentura.

4

Egin banियon ere
txirri edo mirri,
egin banियon ere
txirri edo mirri,
Joxepa Antoni,
nere kopeta ezurrak
pagatu du ongi.

KANTUA

¡Ai ori begi ederrak!
iduritzen zait eperra,
gauza oberik an ez da;
ontxo pollíta,
zapata eder.

txorkatilla guztiz fiña,
jantzi ederki egiña,
ta illiak modarako fiña,
¡ai neretzat baziña!
Elizatikan konbenturaño
egíñ omendute galtzara,
Orrela bizi bagiña beti (3 aldiz)
guazen guztiyok dantzara,
txin txin txibilitua soñua,
txin txibilito ta tanboliñ,
orrela bizi bagiña beti (3 aldiz)
guazen guztiyok dantzara,
Katalin, Katalin,

¡Maitea!

azkeneko eguna da eta (3 aldiz)
guazen gutiyok dantzara,
Katalin, Katalin.

¡maitea!

Katalin, Katalin,
¡nere maitea!

GIZON BAT ARDO GABE

Meajer

Gizon bat ardo gabe
dago erdi illa,
marmar dabilta tripak
ardoren billa:
bañan edan ezker
ardoa txit ongi
gizonik txatarrenak
baliyo ditu bi.

KANTA

Empleatzen ez bada
gazte dala neska
pasa biarko ditu
makiñabat keska,
burutik zoraturik
senar gairik ez ta,
jorra azkenerako
neska zarren festa!

ARKIBIDEA

Orrialdeak

Donostiyako iru damatxo.....	3
Ez dago arrosarikan.....	8
Arbola bat.....	9
Pello Joxepe.....	13
Mendian zoian dan eder.....	16
Lili bat ikusi dut.....	17
Amodiozko solasak.....	18
Iruten ari nuzu.....	20
Zerbait esan ezkeror.....	21
Gaubez gaubez.....	22
Eguzki denean.....	22
Txori errusiñola.....	24
Ardo on ontatik.....	27
Gaztetasunak banerabilla.....	29
Uso txuriya.....	31
Iriyarena.....	33

Txarmangarria	41
Txoriñuak kaiolan	44
Andregeya	46
Nere maite Maria	50
Alde bat probintziyan	53
Lo! lo! lo!	58
Bautista Bazterretxe	60
Zamorako semia	64
Bertsuak jarridiskat	67
Euskal-erriko neskatxatxoak ...	73
Andre Madalen	78
Izazu nitzaz kupira	83
Kontxesirentzat	89
Zerbait damen esker txarra	93
Nere andre onekin	97
Loriak	109
Anton iskiñentzat	116
Mediku baten ateraldia	124
Asto kontua	125
Madalenen arrazoia	126
Nork esan?	127

Kanta	127
Itxasua laño dago	128
Nagusiya ta maiztarra	129
Aizak a motell mañoñtzi	133
Nere senarrarekin	135
Bare bati	138
Ijituak	141
Baratzako pikuak	147
Zortzikoa	148
Aita San Antoniyo	149
Txomiñ eta Bartolo	150
Lua, lua	150
Thingin thangun	150
Gure baratzan	151
Galai bat etorri zait	153
Kantua	155
Gizon bat ardo gabe	156
Kanta	156

